

# GALDERAK

## EHIZTARIAREN ESKULIBURUA

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONč MICO Y COMPETITIVIDAD

# GALDERAK

EHIZTARIAREN
ESKULIBURUA

TEST-MOTAKO 575 GALDERA

**Vitoria-Gasteiz, 2014**

# AURKIBIDEA

**1. EHIZA ETA INGURUMEN ARAUDIA**

Nazioarteko eta estatuko araudia

Eae-ko araudia

**2. EHIZA ARAUTZEA ETA EHIZA JARDUERA**

Ehiza kontzeptua eta ehizan jarduteko betekizunak

Ehiza daitezkeen espezieak

Lurren sailkapena eta seinaleztapena

Ehiza barrutiak

Segurtasun eremuak

Kalteengatiko erantzukizuna

Ehiza modalitateak

Debekuak, delituak eta arau-hausteak

Ehizakien garraioa, merkaturatzea eta kontsumoa

Ehiztarien ordezkaritza eta ehiza-trofeoak homologatzea

**3. EHIZAREN ANTOLAMENDUA**

Populazioen funtzionamendua eta ehiza-aldiak

Ehiza planifikazioa

**4. EHIZA ESPEZIEAK**

Antzarak, basahatea eta beste ehiza-anatido batzuk

Kopetazuria, oilagorra eta beste lohietako batzuk

Eperra, galeperra eta faisaia

Usoak eta usapala

Birigarroak

Ehiza-korbidoak eta arabazozoa

Erbia eta untxia

Azeria eta otsoa

Basurdea eta  zerbidoak

Ehiza-bobidoak

**5.  IDENTIFIKATZEKO ARAZOAK**

**6. EHIZA-ARMAK ETA TXAKURRAK**

Ehiza-armak eta haien munizioa

Ehiza-txakurrak

**7. ETIKA, SEGURTASUNA ETA JOKAERA**

# 1. INGURUMEN LEGERIA ETA ARAUDIA

## Nazioarteko eta estatuko araudia

**1. Honako nazioarteko hitzarmen hauetatik, zein da garrantzitsua flora eta fauna espezieen kudeaketari eta aprobetxamenduari dagokienez?**

a) Bonneko Hitzarmena, zeinaren helburua espezie migratzaileak mundu osoan kontserbatzea baita.
b) Istanbuleko Hitzarmena, zeinak uretako hegaztiak mundu osoan kontserbatzea bilatzen baitu bakarrik.
c) Rabateko Hitzarmena, zeinak ehizakien kontserbazioaz baitihardu.

**2. Hegaztien Zuzentarauak babes-erregimen bat ezartzen du Europako basa-hegazti guztientzat. Zuzentarau horrek:**

a) Hegazti migratzaileen ehiza debekatzen du.
b) Europako Sare Ekologikoa sortzen du, Natura 2000 Sarea.
c) Espezie zehatz batzuk ehizatzen uzten du, baldin eta modu orekatuan egiten bada, eta metodo selektiboekin eta ez masiboekin.

**3. Honako hau da Hegaztien Zuzentarauaren tresna nagusietako bat:**

a) Europako Sare Ekologikoa, Natura 2000 Sarea.
b) Hegaztien Babes Bereziko Guneen (HBBG) sarea.
c) Erkidegoaren Intereseko Lekuen (EIL) sarea.

**4. Habitaten Zuzentarauak Europar Batasuneko biodibertsitatea bermatzea du xede, eta honako hauek kontserbatu nahi ditu horretarako:**

a) Berezko habitatak, eta basanimalienak eta basa-landareenak.
b) Basa-hegaztiak.
c) Espezie migratzaileak eta haien habiak.

**5. Zer da Natura 2000 Sarea?**

a) Sare moderno eta eraginkorra, uso-pase garaian pagausoa ehizatzeko erabiltzen dena.
b) Pagausoak harrapatzen dituen, eta, bere zuloen tamainari esker, babestuta dauden txori txikiei ihes egiten uzten dien sare bat.
c) Espazio naturalez osatutako europar sare ekologiko bat, helburu nagusia Europar Batasuneko dibertsitate biologikoa edo biodibertsitatea kontserbatzea duena.

**6. Ehizari buruzko eskumenak Estatutik erkidego autonomoetara daude eskualdatuta:**

a) Euskal Autonomia Erkidegoak alor horretan dituen eskumen osoak EAEko 1/1970 Legean daude jasota.
b) Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoak ditu alor horretan, eta 2/2011 Legea, Ehizarena, sortu du.
c) EAEn, lurralde historiko bakoitzak ehiza-lege desberdin bat dauka.

**7. Ehizaren alorrean, autonomia-erkidegoen eskumenak osoak dira:**

a) Baina ezin dira Europar Batasunak egiten dituen arauekin kontraesanean egon.
b) Horregatik, nahiz eta komenigarria den, erkidegook ez dute beharrik nazioarteko itunak edo europar zuzentarauak betetzeko.
c) Horregatik, autonomia-erkidegoek ehizaki izenda ditzakete egoki ikusitakoak, espezieok Babes Bereziko Erregimeneko Espezieen Zerrendan badaude ere.

**8. Zein legek sortu zuen Babes Bereziko Erregimeneko Espezieen Zerrenda, zeinaren barnean Arriskuan diren Espezieen Espainiako Zerrenda ezartzen den?**

a) Bonneko Hitzarmenak.
b) Ehizaren 2/2011 Legeak.
c) 42/2007 Legeak, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearenak.

**9. Hauetako zein arauk debekatu zuen animaliak harrapatzeko metodo masiboak erabiltzea?**

a) Bonneko Hitzarmenak.
b) 42/2007 Legeak, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearenak.
c) Mendien 3/2003 Legeak.

**10. Hegaztien Zuzentarauak etaNatura Ondarearen Legeak :**

a) Debekatu zuten hegazti migratzaileak ugaltokietara itzultzen ari direla ehizatzea, hau da, “kontrapasako” ehiza.
b) Debekatu zuten, orokorrean, kontrapasa, pagausoarentzat izan ezik.
c) Ohiko lekuetan, hertsiki zaindutako baldintzetan eta era selektibo batean, "kontrapasako” ehiza baimendu dute.

**11. 42/2007 Legeak, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearenak:**

a) Ehiza daitezkeen espezieak zerrendatzen ditu.
b) Babes Bereziko Erregimeneko Espezieen Zerrenda sortzen du.
c) Ehiza daitezkeen hegazti migratzaileak zerrendatzen ditu.

**EAEko araudia**

### 12. Euskal Autonomia Erkidegoan:

a) Ehiza ez dago arautua, EAEk ez baitauka horretarako legerik.

b) 2/2011 Legeak, Ehizarenak, eta hainbat foru-arauk eta -aginduk arautzen dute ehiza.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legeak, ekainaren 30ekoak, arautzen du ehiza.

### 13. Ehizatzeko, funtsezkoa da debekualdien aginduak ezagutzea:

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Aski da Ehizaren Legea ezagutzea.

### 14. Honako hau da, EAEn, debekualdien agindu bakoitzaren lurralde-eremua:

a) Espainiako estatua.
b) Autonomia erkidegoa.
c) Lurralde historikoa.

### 15. Maiztasun honekin argitaratzen dira ehizako debekualdien aginduak:

a) Urtetik urtera.
b) Bi urtetik bi urtera.
c) Bost urtetik bost urtera.

### 16. EAEn, debekualdien agindu bakar bat argitaratzen da:

a) Egia.
b) Gezurra, bi argitaratzen baitira.
c) Gezurra, hiru argitaratzen baitira, lurralde historiko bakoitzean bana.

### 17. Honako honetan argitaratzen dira, EAEn, debekualdien aginduak:

a) Hedapenik handieneko egunkarian.
b) Estatuko Aldizkari Ofizialean.
c) Lurralde historiko bakoitzeko aldizkari ofizialean.

### 18. 2/2011 Legeak, martxoaren 17koak:

a) Ehiza arautzen du EAEn.
b) Espezie bakoitzerako urteko ehiza kupoak ezartzen ditu.
c) Arriskuan diren Espezieen Zerrenda ezartzen du.

**19. Zein da 2/2011 Legearen helburu nagusia?**

a) Autonomia Erkidegoan ehiza arautzea.
b) Espezie babestuak kontserbatzea eta babestea.
c) Ehiza-espezieak babestea.

**20. Euskal Autonomia Erkidegoak Ehiza Azterketa ezarri zuen**

a) 1980ean.
b) 1990ean.
c) 1998an.

**21. Hauetako zeinek arautu du ehizatzeko gaitasunaren azterketa?**

a) 42/2007 Legea, Natura Ondarearena.
b) 1/2014 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
c) 160/2014 Dekretua, uztailaren 29koa, ehiza-baimena eta ehizatzeko gaitasunaren azterketa arautzen dituena.

**22. Honako hauek sortu zituen 16/1994 Legeak, ekainaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babestekoak:**

a) Euskal Autonomi Elkarteko Babestutako Naturaguneen Sarea eta Arriskuan dauden Espezieen Zerrenda.
b) Ehiza Guneen Sarea eta EAEn Ehiza daitezkeen Espezieen Zerrenda.
c) Natura Gune Babestuen Sarea eta Ehiza daitezkeen Espezieen Zerrenda.

**23. Euskal Autonomia Erkidegoko Naturagune babestuak izan daitezke:**

a) Natura-parkeak, biotopo babestuak eta zuhaitz bitxiak.
b) Natura-parkeak eta biotopo babestuak.
c) Natura-parkeak, biotopo babestuak, zuhaitz bitxiak eta Natura 2000 Europako Sarean sartutako eremu edo tokiak.

**24. 167/1996 Dekretuak, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko denak, lau maila ezartzen ditu:**

a) “Galtzeko arriskuan”, "kaltebera”, "bakana” eta “interes berezikoa”.
b) “Galtzeko arriskuan”, "kaltebera”, "bakana” eta “ehitza-interesekoa”.
c) “Galtzeko arriskuan”, “kaltebera”, “ehiza daitekeena” eta “arrantza daitekeena”.

**25. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Foru Aldundiek:**

a) Ez dute eskumenik ehiza alorrean.
b) Ehiza-barruti sozialetako ehiza soilik arautzen dute.
c) Eskumenak ehizan.

**26. Foru-administrazioek foru-arauak, -dekretuak eta -aginduak argitaratzen dituzte lurralde historikoetan ehiza arautzeko, eta, horregatik:**

a) EAEn ehiza arautzeko Foru Agindua argitaratzen da, urtero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA).
b) Ehizari buruzko xedapenak argitaratzen dira, urtero, lurralde historiko bakoitzeko aldizkari ofizialean.
c) Ehizako foru-agindu bakar bat argitaratzen da urtero, eta berdina da hiru lurralde historikoetarako.

**27. Lurralde historikoek estatuko probintziak baino eskumen handiagoak dituzte ingurumen-gaietan, hala nola ehizan. Foru-administrazioek ehizako foru-arauak argitara ditzakete, beren lurralde historikoan jarduera hori arautzeko:**

a) Soilik Bizkaiak eta Gipuzkoak idatzi dituzte ehizako beren foru-arauak.
b) Beraz, ehizako hiru foru-arau dira: lurralde historiko bakoitzeko, bana.
c) Orain arte, Arabako Lurralde Historikoak bakarrik dauka ehizako foru-arau bat.

**28. EAEko natura-gune babestuak eta nazioarteko tresnek babestutako eremu babestuak:**

a) Aprobetxamendu erkideko lurrak dira.
b) Ehiza-araubide bereziko lurrak dira.
c) Gune babestuak dira, non ehiza zeharo debekaturik baitago.

**29. Naturagune babestuak ehiza-araubide bereziko lurrak dira:**

a) Haietan, kontuan hartu beharko dira gune bakoitzaren erabilera arautzen duten xedapenak.
b) Ez da uzten ehizan jarduten, haietan.
c) Ez da uzten su-armaz ehizatzen, haietan.

**30. Naturagune babestuetan:**

a) Arras debekaturik dago ehizan jardutea.
b) Guneen eta espezieen kontserbazioak baldintzatzen du ehiza-jarduera; horregatik, ez da uzten txakurrekin ehizatzen.
c) Kontuan hartu beharko dira, ehizatzeko, gunearen erabilera arautzen duten xedapenak, eta haiek arautu ez dutenarentzat, ehizaren gaineko xedapenak.

2. EHIZA ARAUTZEA ETA EHIZA JARDUERA

**Ehiza kontzeptua eta ehizan jarduteko betekizunak**

**31. Ehizatzea da gizakiak, arte, arma, animalia edo bestelako modu homologatuen bidez animaliak bilatzea, erakartzea, esestea edo jazartzea, azken buruan, animalia horiek hiltzeko edo harrapatzeko asmoz, edo besteren batek harrapa ditzan errazteko asmoz:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Soilik ehizakia akabatzen badute.

**32. Nor ari da ehizan?**

a) Animaliak hiltzeko edo harrapatzeko asmoz, edo beste batek harrapa ditzan errazteko asmoz dabilena.
b) Ehizakien atzetik haiek akabatzeko dabilen pertsona soilik ari da ehizan.
c) Inor ehizan ariko bada, nahitaezkoa da su-arma bat eramatea.

**33. Eskopeta zorrotik aterata eta kargatuta dela landara irtetea, tirorik egin ez bada ere, ehizatzat jotzen da:**

a) Zerbait ehizatu dugunean bakarrik izango da hala.
b) Egia.
c) Gezurra.

**34. 14 urtetik beherakoek ezin dute ehizan jardun:**

a) Batzuetan.
b) Gezurra.
c) Egia.

**35. Ehizan jarduteko, ehiza-lizentzia eduki behar da beti:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Batzuetan.

**36. Zein agiri eraman behar dira, nahitaez, ehizan jarduteko?**

a) Nortasun Agiri Nazionala (NAN) eramatea komeni da, nahiz eta derrigorrezkoa ez izatea.
b) Nortasun Agiri Nazionala (NAN) eta ehizari dagozkion agiri guztiak (lizentzia, asegurua, arma-baimena…) eraman behar dira.
c) NAN eta ehiza-lizentzia eraman behar dira, nahiz eta agiriak bilduta uztea komeni den, autoan edo, haiek ez galtzeko, edo euririk egiten badu honda ez daitezen.

**37. Su-armaz ehizan jarduteko, nahitaezkoa da armaren jabetza-gida aldean eramatea:**

a) Bai.
b) Ez.
c) Arma mailegatua denean bakarrik.

**38. Pertsona adingabeek, arma-lizentzia dutenek, erabil ditzakete armak, ehizan jarduteko:**

a) Lagunduta joan beharrik izan gabe.
b) Ezin dute eskuratu arma-lizentziarik.
c) Haien lagun edo zaindari gisa jardungo duela adierazi duen adin nagusiko ehiztariren batekin joan beharko dute..

**39. Zertarako da beharrezkoa ehizarako gaitasun-azterketa gainditzea?**

a) Lehen aldiz arma-baimen bat eskuratzeko.
b) Lehen aldiz eskuratzeko Euskadiko ehiza-lizentzia.
c) Urtero gainditu behar da azterketa, Euskadiko ehiza-lizentzia berritzeko.

**40. Ehiza-azterketari dagokionez, zein da egia honako baieztapen hauetatik?**

a) Ipar eta Erdialdeko Europan errotutako proba bat da.
b) Espainiako estatuko autonomia erkidego guztietatik, Euskadin bakarrik egiten da ehiza-azterketa.
c) Euskadi izan zen ehiza-azterketa ezarri zuen lehen tokia, Europan.

**41. Ehiza-lizentzia norberarena eta besterenezina da, eta beharrezkoa da bera edukitzea:**

a) Ehiza-erregimen bereziko lurretan ehizatzeko: gune "libreetan" ez da beharrezkoa lizentzia ehizan jarduteko.
b) Ehizatzeko.
c) Su-armekin ehizatzeko.

**42. Euskadiko ehiza-lizentziak honako honetan ehizatzeko balio du:**

a) Estatuan.
b) Euskadin eta Nafarroan.
c) Euskal Autonomia Erkidegoan.

**43. Ehiza-lizentziei buruz, zein egiaztapen da zuzena?**

a) Lizentzia mota bakar bat da, ehizan jarduteko, estatu osoan.
b) Lizentzia mota bakar bat da, ehizan jarduteko, Euskadi osoan.
c) Lizentzia mota bakar bat da, ehizan jarduteko, estatuan, Euskadin izan ezik, Euskadik bere ehiza-lizentzia baitauka.

**44. Ehiza-lizentzia motei dagokienez:**

a) Hiru mota dira, bat estaturako, beste bat Euskadirako, eta beste bat Kataluniarako.
b) Autonomia erkidego bakoitzak era desberdinean arau ditzake ehiza-lizentziak.
c) 19 mota dira, autonomia erkidego bakoitzeko bana, Euskadin izan ezik, non 3 eredu baitira, lurralde historiko bakoitzean ehizatzeko bana.

**45. Ehiztariaren erantzukizun zibileko asegurua:**

a) Nahitaezkoa da armekin ehizatzeko.
b) Borondatezkoa da, nahiz eta komenigarria den, ehizan jarduteko.
c) Ez da beharrezkoa, baldin eta gune "libreetan" ehizatu behar badugu, baina nahitaezkoa da ehiza-barrutietan ehizatzeko.

**Ehiza daitezkeen espezieak**

**46. Zer jotzen da ehiza daitekeen espezietzat?**

a) Babestu gabeko animalia espezie oro.
b) Espreski ehizaki adierazten diren espezieak.
c) Espezie babestuen zerrendan sartuta ez dagoen animalia espezie oro.

**47. Printzipioz, honako hauek ehiza daitezke:**

a) Espezie babestuen zerrendan sartuta ez dauden espezieak.
b) Ugariak diren eta babestuta ez dauden espezieak.
c) Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezartzeko urriaren 16ko 216/2012 Dekretuan adierazten diren espezieak.

**48. Espezie bat ehizaki izendatuta egoteak:**

a) Esan nahi du edonon eta edonoiz harrapa daitekeela.
b) Esan nahi du baldin eta bera harrapatzea kupo bati lotuta badago ehiza daitekeela.
c) Esan nahi du zehazten diren modalitateetan, lekuetan eta garaietan ehiza daitekeela.

**49. Legeak bi taldetan bereizi ditu ehiza-espezieak:**

a) “Ehiza larria” eta "ehiza xehea”.
b) “Ehiza larria” eta “arrasto-ehiza".
c) “Ehiza xehea” eta “lumadunen ehiza”.

**50. Iledun ehizakietan eta lumadun ehizakietan sailkatzen dira ehiza larriko ehizakiak:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Batzuetan.

**51. Ehiza daitezkeen hegaztiak ehiza xeheko ehizakitzat jotzen dira:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Guztiak ez.

**52. Ehiza larriko ehizakitzat hartzen dira:**

a) Ehiza-ugaztun guztiak.
b) Erbiabaino ehiza-ugaztun handiagoak, azeria barne.
c) Azeria baino ugaztun handiagoak.

**53. Ehiza xeheko ehizaki dira:**

a) Ehiza-hegaztiak; ugaztunak ehiza larriko ehizaki dira.
b) Hegaztiak, azeria eta azeria baino ugaztun txikiagoak.
c) Erbia baino txikiagoko edo erbiaren tamaina bereko ehiza-ugaztunak, eta basurdea.

**54. Azeria ehiza larriko ehizakia da:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Heldua denean bakarrik.

**55. Basurdea ehiza larriko ehizakia da:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Batzuetan.

**56. Ehiza daitezkeen espezieak:**

a) Araudiak adierazten dituenak dira, eta espezie bakoitzak daukan dentsitatetik independentea da hori.
b) Ohituraz beti ehizatu diren guztiak dira, salbu dagokion lurralde historikoan hektareako ale bat baino txikiagoko batez besteko dentsitatea dutenak.
c) Ohituraz beti ehizatu diren guztiak dira, salbu dagokion lurralde historikoan hektareako bi ale baino txikiagoko batez besteko dentsitatea dutenak.

**57. Ezingo dira izan, inoiz, ehiza daitezkeen espezie, Europar Batasunak Interes Bereziko Espezieen Zerrendetan sartutakoak.**

a) Zuzena, salbu espezie horiek oso ugariak direnean lurralde edo herri zehatz batean.
b) Zuzena.
c) Ez, Europar Batasuneko herriak guztiz burujabeak baitira espezieak ehizatzeko modukotzat edo ezin ehizatuzkotzat sartzeko.

**58. Herrialde batean espezie bat ehiza daitekeen jakiteko:**

a) Aski da Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezartzeko urriaren 16ko 216/2012 Dekretua irakurtzea..
b) Nahikoa da foru-agindu bat irakurtzea, Euskadin denboraldi horretan zein espezie ehiza daitezkeen jakiteko.
c) Ehizan aritu behar den lurralde historikoko urteko debekualdien agindua aztertu behar da.

**59. Ehizakien jabetza:**

a) Haiek harrapatzen edo hiltzen dituenak bereganatzen ditu ehizakiak.
b) Barrutiarenak dira ehizakiak.
c) Etxaldeen eta lurren jabeenak dira ehizakiak.

**60. Ehiztari batek ehizatu daitekeen lur-eremu batean ehizaki bat zaurituz gero, ehizaki hori jasotzera sartu ahal izango da beste lur-zati batera. Ehiztariak:**

a) Arma deskargatuta duela sartuko da lur horretan.
b) Arma irekita eta deskargatuta duela, eta txakurra loturik daramala sartuko da lur horretan; eta lurra itxita badago, haren jabearen baimena behar du.
c) Ez dauka hura hartzeko eskubiderik.

**61. Demagun basurde bat bota dela, baina zenbait tiro jaso dituela hil aurretik. Nork eskuratzen du ehizaki hori?**

a) Animaliari bizia kentzen dionak, hura akabatzen duenak.
b) “Lehen odola” eragin dionak, hau da, lehendabizi zauritu duenak.
c) Animalia aurkitzen duenak, hildako ehizakiarengana aurrena heltzen denak.

**62. Demagun azeri bat bota dela, baina zenbait tiro jaso dituela hil aurretik. Nork eskuratzen du ehizaki hori?**

a) Animaliari bizia kentzen dionak, hura akabatzen duenak.
b) “Lehen odola” eragin dionak, lehendabizi zauritu duenak.
c) Animalia aurkitzen duenak, hildako ehizakiarengana aurrena heltzen denak.

**63. Demagun eper gorri baten jabetza eztabaidatzen dela. Nork bereganatzen du ehiza xeheko ehizaki hori?**

a) Altxatzen duenak.
b) Eraisten duenak, lurrera botatzen duenak.
c) Hartzen duenak.

**Lurren sailkapena**

**64. Zer ehiza-lur mota handi bereizten ditu EAEn indarrean den ehiza-legeak?**

a) “Erregimen berezikoak” eta “ehiza-barrutiak”.
b) “Aprobetxamendu arruntekoak” eta “libreak”.
c) Ehiza-lurrak, ehizarako ez diren lurrak eta ehiza-araubide bereziko lurrak.

**65. Honako hauek jotzen dira ehiza-lurtzat:**

a) Beren ezaugarriengatik ehizan jarduten uzten dutenak.
b) Aprobetxamendu erkideko lurrak, zainpeko ehiza-eremuak, ehiza-barrutiak eta ehiza-txakurrak trebatzeko edo ehiza-jarduerak egiteko eremuak.
c) Natura-gune babestuak eta nazioarteko tresnek babestutako eremuak.

**66. Hesituta dauden lurretan, sarbideak etengabe irekita ba dituzte eta sartzeko debekurik adierazten ez ba dute, ehiza daiteke?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Bai, baimen batekin.

**67. Hesituta dauden lurretan, sarbideak etengabe irekita ba dituzte baina sartzeko debekua adierazten ba dute, ehiza daiteke?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Jabeak soilik.

**68. Honako hau da egungo joera, aprobetxamendu erkideko lurrei dagokienez:**

a) Mota horretako gero eta gune gehiago izendatzea, ehiza gero eta sozialago eta denentzat eskuragarriago bilakatzeko.
b) Haiek kentzea eta, hala badagokio, ororentzako ehiza-barrutiak edo zainpeko ehiza-eremuak bihurtzea.
c) Haien azalera murriztea, eta beste gune libre baina txiki batzuk sortzea, non ehiza intentsiboa egin daitekeen haztegiko animaliengan.

**69. Aprobetxamendu erkideko ehiza-lurrak murrizteko edo kentzeko joera da egun:**

a) Aprobetxamendu arrunteko ehiza-lurrek uzten dute egiten ehiza-planifikaziorik handiena, preseski ehiza-jabetzatik askatuta daudelako.
b) Egia da; hala ere, hobe da ehizan jardutea, zeren animalia-populazioak izurri bilaka bailitezke bestela.
c) Egia da, eta hegazti migratzaileak ehizatzen bakarrik uzten da euretan, urtero debekualdien aginduak zehazten duen kupoarekin.

**70. Aprobetxamendu erkideko ehiza-lurren hedaduraz:**

a) 100 ha-ko azalera jarraitua izan behar dute, gutxienez.
b) 100 ha-ko azalera jarraitua izan behar dute, gehienez.
c) Ez da ezartzen inongo mugarik horretaz.

**71. Baldin eta foru-aldundiak ehiza-lur bat eratu badu hango ehiza-aberastasuna babestu, zaindu, sustatu eta modu antolatuan ustiatzeko asmoz, honako hau da aipatu lurra:**

a) Faunaren babesleku bat.
b) Ehiza industrialeko eremu bat.
c) Zainpeko ehiza-eremu bat.

**72. Nork sortzen ditu zainpeko ehiza-eremuak:**

a) Ehiza-federazioak.
b) Eusko Jaurlaritzak.
c) Foru Aldundiak.

**73. Honako indarraldi hau izango dute, gehienez, zainpeko ehiza-eremuek:**

a) Sei urte.
b) Bederatzi urte.
c) Hamar urte.

**74. Zainpeko ehiza-eremu batek batzen dituen herrietako lurralde osoa bildu behar du:**

a) Ezingo da izan beste ehiza-lurrik udalerri horietan.
b) Ezingo da izan beste ehiza-lurrik udalerri horietan, salbu txakurrak trebatzeko eta ehiza-jardueraetako guneak.
c) Izan daiteke beste ehiza-lurrik edo izan daitezke beste ehiza-lur batzuk udalerri horietan.

**75. Zainpeko ehiza-eremuek erreserbako gune bat izango dute, eta hark hedadura hau izango du gutxienez:**

a) % 50ekoa.
b) % 20koa.
c) % 10ekoa.

**76. Zainpeko ehiza-eremua eratzeko, foru-aldundiak, aldez aurretik, ehiza antolatzeko plan teknikoa onartu beharko du:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Hegazti migratzaileentzat baino ez da plan teknikorik egingo.

**77. Honakoak dira ehiza-barrutiak: ehizarako erabil daitezkeen lur-azalera jarraituak, foru-organo eskudunak izendapen hori eman dienean:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Egia, baina ehiza ugari egon behar du.

**78. Lur jabe batek edo gehiagok osa dezakete ehiza-barruti bat:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Legeak ez du uzten lursailak batzen.

**79. Ehiza-barrutiak berralokatzea:**

a) Debekaturik dago.
b) Jarduera ohikoa eta hedatua da.
c) Ehiza-aprobetxamendu jakin batzuetan bakarrik onartzen da, jabeak aurrez espresuki eskatuta eta foru-erakunde eskudunak ezarritako baldintzetan.

**80. Azalera hau eskatzen da, gutxienez, barruti batean ehiza larriko espezieen aprobetxamendua baimentzeko:**

a) 1.000 hektarea.
b) 2.000 hektarea.
c) 3.000 hektarea.

**81. Azalera hau eskatzen da, gutxienez, barruti batean ehiza xeheko espezieen aprobetxamendua baimentzeko:**

a) 3.000 hektarea.
b) 1.000 hektarea.
c) 500 hektarea.

**82. Ondokoei dagokie ehiza-barruti batean ehizatzeko eskubidea erabiltzea:**

a) Titularrari eta herrikoei.
b) Titularrari eta hark baimentzen duenari.
c) Lurra dagoen herrikoei edo herrietakoei bakarrik.

**83. Legeak ezartzen du ehiza-barrutiek ehiza-erreserbako eremu bat izan behar dutela, fauna babesteko eta garatzeko, eta han, debekaturik dago ehiza. Honako hau izango da erreserbaren hedadura, gutxienez:**

a) Ehiza-barrutiaren azaleraren % 10.
b) Ehiza-barrutiaren azaleraren % 20.
c) Ehiza-barrutiaren azaleraren % 30.

**84. Ehiztari-zerrenda bat ezarriko da ehiza-barrutietan, ehizan jardun nahi baina barrutirik ez dutenekin. Poltsa horretan daudenek, zozketa bidez, ehiza-barrutietan libre dauden tokiak eskuratu ahal izango dituzte.**

a) Gezurra.
b) Egia.
c) Ehiza-barrutik sozialetan bakarrik da hala.

**85. Ororentzako ehiza-barrutiak sortuta, ehizan jardutea erraztu nahi zaie:**

a) Ehizatzeko baldintzak bete baina beste motatako ehiza-lurrak erabil ezin ditzaketen herritarrei.
b) Herriko ehiza-elkarteari.
c) Beste herrialde batzuetako ehiza-elkarteei.

**86. Honako hauek dira, EAEn, ehiza-araubide bereziko lurrak:**
a) Ehiza-barrutiak.
b) Naturgune babestuak, nazioarteko lege-bitartekoek babestutako guneak eta segurtasun-guneak.
c) Ehiza-barrutiak eta zainpeko ehiza-eremuak.

**87. Ondokoek ehiza dezakete ororentzako ehiza-barrutietan:**

a) Ehiza-lizentzia dutenek.
b) Arma-baimena dutenek.
c) Ehiza-barrutian ehizatzeko baimena dutenek.

**88. Ororentzako ehiza-barrutietan, hauentzat gordetzen da ehiza-baimenen % 50:**

a) Federatutako pertsonentzat.
b) Herriko ehiza-elkartearentzat.
c) Ororentzako ehiza-barrutia dagoen lurralde historikoan bizi direnentzat.

**89. Irabazi-asmoz kudeatutako eremu bat aipatzen digute, eta, han, hainbeste ordainduta, haztegietan hazitako eta berehala ehizatzeko askatutako animaliak ehiza daitezke:**

a) Ehiza industrialeko eremua da.
b) Ehiza-barruti pribatua da.
c) Ehiza-erreserba da.

**90. Araban, ondoko hedaduratik behera izan behar dute ehiza industrialeko eremuek:**

a) 500 ha.
b) 1.000 ha.
c) 2.000 ha.

**91. Ehiza industrialeko eremuei, nork ezartzen dizkie ehizarako baldintzak?**

a) Foru-erakundeek.
b) Aprobetxamenduaren jabeak.
c) Aprobetxamenduaren jabeak, ehiza-planaren bitartez.

**92. Zertarako erabiliko dira ehiza-jarduueretako eremuak:**

a) Ehiza-jarduera librea.
b) Ehiza-ibilbideak (baina animaliak hil gabe), hegazti harrapari bidezko ehiza-erakusketak eta antzeko jarduerak antolatzeko erabiliko dira.
c) Falkoneria-erakusketak, heriotzarik gabeko ehiza-ibilaldiak eta postu finkotiko ehiza egitea.

**93. Naturagune babestuak eta ingurumenaren arloko nazioarteko legedi bidez babestutako guneak:**

a) Aprobetxamendu arrunteko ehiza-lurrak dira.
b) Ehiza-araubide bereziko lurrak dira.
c) Ehiza debekatutako lurrak dira.

**94. Segurtasun-eremuak erregimen bereziko lurrak dira:**

a) Bai.
b) Ez.
c) Kasu bakoitzaren arabera aldatzen da.

**95. Honela deitzen zaie pertsonak eta haien ondasunak babesteko neurriak behar dituzten lurrei:**

a) Zainpeko ehizako guneak.
b) Erreserba-guneak.
c) Segurtasun-eremuak.

**96. Pertsonen eta haien ondasunen babesa bermatzeko, ezin da ehizatu armekin, ez hiriguneetan, ez landaguneetan, ez jendea bizi daitekeen lekuetan, ez haien inguruetan. Nola deitzen zaie leku horiei?**

a) Ehiza-babeslekuak.
b) Segurtasun-eremuak.
c) Erreserba-guneak.

**97. Segurtasun-eremuetan, armak erabiltzeko debekua:**

a) Ez da derrigorrez bete behar.
b) Arkuetara eta baleztetara dago mugaturik.
c) Salbuetsi egiten da jadanik ezarrita dauden eta foru-aldundiek aitortu dituzten postu finkoetan.

**98. Segurtasun-eremutzat hartzen al da bide publiko bat?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Batzuetan.

**99. Segurtasun-eremu al da errepide bat?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Batzuetan.

**100. Trenbideak segurtasun-eremu dira:**

a) Egia.
b) Gezurra.
c) Batzuetan.

**101. Aire zabaleko kirolguneek segurtasun-eremu bat dute, zeinak honako hau hartzen baitu:**

a) 50 metro, norabide guztietan.
b) 200 metro, norabide guztietan.
c) Instalazioak ixten dituen hesia heltzen deneraino.

**102. Errepideak segurtasun-eremu dira; su-armekin ehizatzeko, gutxienez honenbeste urrundu behar dugu haietatik:**

a) 25 metro.
b) 50 metro.
c) 75 metro.

**103. Autobideak eta autobiak segurtasun-eremu dira. Su-armekin ehizatzeko, gutxienez honenbeste urrundu behar dugu:**

a) 25 metro.
b) 75 metro.
c) 50 metro.

**104. Erabilera publikoko bideak segurtasun-eremu dira. Su-armekin ehizatzeko, gutxienez honenbeste urrundu behar dugu:**

a) 25 metro.
b) 50 metro.
c) 75 metro.

**105. 2 m baino estuagoko bide berdeak segurtasun-eremu dira. Su-armekin ehizatzeko, gutxienez honenbeste urrundu behar dugu:**

a) 50 metro.
b) 25 metro.
c) Ez da distantzia-murrizketarik, baldin eta ehiztariak 250 m-raino ikus badezake bidearen alde bietara.

**106. Trenbideak segurtasun-eremu dira. Su-armekin ehizatzeko, gutxienez honenbeste urrundu behar dugu:**

a) 75 metro.
b) 50 metro.
c) 25 metro.

**107. Bidegorri edo bizikleta-bideak eta bide berdeak segurtasun-eremu dira. Su-armekin ehizatzeko, gutxienez honenbeste urrundu behar dugu haietatik:**

a) 20 metro.
b) 50 metro.
c) 75 metro.

**108. Hiriguneak eta landaguneak segurtasun-eremu dira. Su-armekin ehizatzeko, gutxienez honenbeste urrundu behar dugu:**

a) 50 metro, azken eraikinetatik.
b) 100 metro, azken eraikinetatik.
c) 200 metro, azken eraikinetatik.

**109. Mendian, maiz topatzen dira bakartutako eta jendea bizi daitekeen eraikinak. Su-armekin ehizatzekogutxienez honenbeste urrundu behar dugu:**

a) 50 metro, ehiza xehean ari bagara, eta 100 metro, ehiza larrian ari bagara.
b) 100 metro, ehiza xehean ari bagara, eta 200 metro, ehiza larrian metalezko kartutxoekin ari bagara.
c) 200 metro, edozelako ehiza motatan.

**110. Debekatu egiten da segurtasun-eremuetarantz tiro egitea:**

a) 15 metrotik baino hurbilagotik, perdigoiekin tiro egiten dugunean, eta 50 metrotik baino hurbilagotik, balaz tiro egiten dugunean.
b) Ezbeharrak saihesteko, sekula ez dugu segurtasun-eremu baterantz tiro egingo, bereziki gure jaurtigaiaren irismenean dugunean.
c) Debeku hori bala-tiroetarako da bakarrik, zeren perdigoiek irismen txikia baitute, eta ez baitira hain arriskutsuak.

**111. Faunaren babeslekuak ehiza-erregimen bereziko lurrak dira:**

a) Bai.
b) Ez.
c) Kasu bakoitzaren arabera aldatzen da.

**112. Zer lur dira faunaren babeslekuak?**

a) Ehizakoak, berez.
b) Ehiza-erregimen berezikoak.
c) Ehizarako ez diren lurrak.

**113. Honako azalera hau izan behar dute faunaren babeslekuek, gutxienez:**

a) 500 hektarea.
b) 250 hektarea.
c) Edozein azalera.

**114. Ehiza al daiteke faunaren babeslekuetan?**

a) Beti.
b) Inoiz ez.
c) Ehiza-espezieen zenbait ale harrapatzeko baimena eman dezakete Foru-Aldundiek, zientziari lotutako arrazoiak direla medio, edo pertsonei, laboreei edo faunari egin dakizkiekeen kalteak saihesteko..

**115. Zer da faunaren babeslekua?**

a) Eratzen den eremua, biologiaren, zientziaren edo hezkuntzaren arloko arrazoiak direla medio, espezie jakin batzuen biziraupena bermatzeko.
b) Ehiza-espezieen ehizarako gordetako gune bat.
c) Eguraldi txarra denean aterpea eta babesa bilatzeko toki bat. Foru-aldundiek ipintzen dituzte.

**116. Zer dira pertsona edo animalia arrotzei sartzea eta barrukoei irtetea galarazteko hormaz, hesiz, heskaiz edo beste edozein obraz edo gailuz itxitako lurrak?**

a) Fauna-babeslekuak.
b) Segurtasun-eremuak.
c) Ehizarako debekatutako guneak.

**Ehiza lurren seinaleztapena**

**117. Nahitaezkoa da ehiza-barrutiak seinaleztatzea:**

a) Batzuetan.
b) Inoiz ez.
c) Beti.

**118. Legeak agintzen du ehiza-lur guztiek, erkideko aprobetxamendukoek izan ezik, behar bezala seinaleztatuta egon behar dutela. Ondokoari dagokio seinaleztatzea:**

a) Eskualdeko basozainari.
b) Aprobetxamenduaren titularrari.
c) Administrazioari.

**119. Lur bat ehizakoa dela adierazteko, zenbat seinale mota dago?**

a) Mota bakar bat.
b) Bi mota: kartelak eta seinaleak.
c) Hiru motata: kartelak, seinaleak eta panelak.

**120. Lauki bat, 33 cm gorakoa eta 50 cm zabalekoa dena, eta letra beltzez “Ehiza-barrutia” dioena, zer da?**

~~a)~~ Kartela.
b) Seinalea.
c) Panela.

**121. Zer da lauki bat, bi zati (bat zuria eta bestea beltza) dituena diagonalean, eta letrarik ez daukana?**

a) Kartel bat.
b) Seinale bat.
c) Panel bat.

**122. Ondokoetan azaldu behar du ehiza-barrutiaren matrikula-zenbakiak:**

a) Barrutiko seinale guztietan.
b) Karteletan.
c) Seinaletan.

**123. Nolakoak dira seinaleak?**

a) Biribilak.
b) Karratuak.
c) Angeluzuzenak.

**124. Seinaleek bi dauzkate, zurian eta beltzean:**

a) Zirkulu.
b) Karratu.
c) Triangelu.

**125. Kartelak eta seinaleak ipini behar dira:**

a) Ehiza-lurraren barrutik ikusteko.
b) Ehiza-lurraren kanpotik ikusteko.
c) Bost axola norantz begira dauden seinale eta kartelak, bideetatik ikusten ba dira.

**126. Ondokoa da bi kartelen arteko distantzia, gehienez:**

a) 300 m.
b) 600 m.
c) 1.000 m.

**127. Seinaleak kartelen artean tartekatuta ipini behar dira, eta ondokoa izango da bi seinaleren arteko distantzia, gehienez:**

a) 1.000 m.
b) 600 m.
c) 100 m.

**128. Ehiza-barrutiak ez ezik, kasu hauetan ere seinaleak jarri behar dira:**

a) Uxaldiak egin behar diren guneetan.
b) Uxaldiak egin behar diren guneetan, tiro-lerroen inguruan eta postu finkoetara joatekoetan.
c) Onura publikoko izendatutako lurretan ehiza egin behar den guztietan.

**Kalteengatiko erantzukizuna**

**129. Normalean, ondokoari egozten zaio ehiza-espezieek nekazaritzan edo abeltzaintzan eragindako kalteen erantzukizuna, ehiza-barrutietan:**

a) Kaltea izan den ehiza aprobetxamenduaren titularrari.
b) Kaltetutako lursailaren edo ustiategiaren jabeari.
c) Administrazioari.

**130. Demagun basurde batek kalteak sortu dituela ehiza-barruti baten barneko soroetan:**

a) Barrutiaren ehiza-aprobetxamenduaren titularra da erantzulea.
b) Soroen jabea da erantzule, hesi elektriko bat ipini ez duelako.
c) Administrazioa da erantzule, beti.

**131. Arabako Ehizaren Foru Arauak kaltearen kokapenaren eta hura eragin duen espeziearen arabera ezartzen ditu erantzukizunak. Baldin eta basurde batek kalteak sortu baditu faunaren babesleku baten soroetan:**

a) Ehiza-barruti hurbilenaren ehiza-aprobetxamenduaren jabea da kaltearen erantzule.
b) Soroen jabea da kalteen erantzule, hesi elektriko bat ipini ez duelako.
c) Administrazioak erantzungo die kalteei.

**132. Orkatz batek kalteak sortu ditu ehiza-barrutiko soroetan; gainera, barrutiaren titularraren borondatez, espezie hori ez dago sartuta barrutiko Ehiza Antolatzeko Plan teknikoan, hau da, orkatza ezin da ehizatu. Arabako Ehizari buruzko Foru Arauaren arabera, nori dagokio kalteen erantzukizuna?**

a) Administrazioari, orkatza ez baita ehiza-espezie bat.
b) Barrutiaren aprobetxamenduaren titularrari, haren borondatez gelditu baita espeziea Planean sartu gabe.
c) Soroen jabeari, kalteak saihesteko beharrezko neurriak hartu ez dituelako.

**Ehiza modalitateak**

**133. Monteria deritzana Iberiar penintsulako erdialdean eta hegoaldean egiten da; ondokoa da:**

a) Ehiza larria: basurdea, oreina… ehizatzen dira.
b) Ehiza xehea: eperra, usoa… ehizatzen dira.
c) Iledunen ehiza xehea: azeria eta erbia ehizatzen dira.

**134. Euskadin, nola ehizatzen da basurdea, gehienetan?**

a) Hura saltatzean.
b) Uxaldian.
c) Udazkeneko “pasean”.

**135. Basurde uxaldietan:**

a) Arrei soilik egin dakieke tiro.
b) Arrei eta eme handiei egin dakieke tiro.
c) Bai arrei bai emeei egin dakieke tiro, kumeekin doazen emeak ez badira.

**136. Zelatazko ehiza:**

a) Pagausoa ehizatzeko ehiza modalitate bat da.
b) Kantabriar Mendikatean sarrioa ehizatzeko bakarrik erabiltzen den ehiza modalitate bat da.
c) Ehiza larriko modalitate bat da.

**137. Kalte suertatzen direnean, ondokoa ehiza daiteke “itxarote” edo “zelatatze” ehiza modalitatearen bitartez:**

a) Basurdea.
b) Eper gorria.
c) Oilagorra.

**138. Honako hauek ehizatzen dira “saltatzean” edo “jauzi” ehiza modalitatean:**

a) Orkatza eta basurdea.
b) Orkatza eta oreina.
c) Eperra, oilagorra eta birigarroa.

**139. “Talde-ehiza” eta "saltatzean" ehiza xeheko bi modalitate dira:**

a) Ez dira desberdinak; izendapen desberdinak dira, baina ehiza modalitate bera da.
b) Honetan datza aldea: “saltatzean” ehiza motan su-armak erabiltzen dira; talde-ehizan, aldiz, ez da su-armarik.
c) Honetan datza aldea: “talde-ehizan”, hainbat lagun aritzen dira era koordinatuan, eta batera joaten dira aurrerantz.

**140. Baldin eta hainbat lagunen artean eperrak ehizatu nahi badituzte, zein ehiza modalitate egingo dute?**

a) Monteria.
b) Talde-ehiza.
c) Zelata-ehiza.

**141. Urria da, eta zenbait lagun ikusi ditugu ehizan, adar artean ezkutaturik, mendi-gain batean, elkarrengandik banatuta:**

a) "Talde-ehizan" ari dira ehizatzen, segur aski basurdea.
b) "Postu finkoan" ari dira ehizatzen, segur aski pagausoa.
c) Oilagor-ehizan ari dira, postu finko batetik eta "itxarote" motan: foru-arauan salbuespen gisa aurreikusitako ehiza-modalitate bat.

**142. Euskadin, honela ehizatu ohi da pagausoa "paseko" garaian:**

a) Postu finko batetik.
b) Talde-ehizan.
c) Hura saltatzean.

**143. Txabolatiko ehizan, apeu batzuen bitartez erakartzen dira uso taldeak:**

a) Uso taldea txabolatik 50 metrora baino hurbilagora hegan igarotzen denean egin behar da tiro.
b) Usoak inguruko zuhaitz batean pausatzea lortu denean egin behar da tiro.
c) Ehiza modalitate horrek ez du uzten usoak harrapatzen, uso taldeak erakartzea lortzea da gozabide.

**144. Sare bidezko uso-ehiza aspaldiko ohitura da Nafarroan, Etxalarren; EAEn, ehiza modalitate hori:**

a) Oso hedaturik dago, halaber.
b) Gipuzkoan bakarrik egiten da.
c) Ez da onartzen.

**145. Arrasto-txakurrekin egindako erbi-ehizan, txakurra da benetako protagonista:**

a) Eta, erbi-txakurrekin egindako ehizan bezala, ez da erabiltzen eskopetarik.
b) Etzalekuraino jarraitzen baitio erbi-arrastoari, eta, erbia altxatzen denean, atzetik abiatzen baitzaio.
c) Erbia etzalekuan aurkitutakoan, altxatu aurretik egiten zaio tiro.

**146. Honako hau da “silbestrismoa":**

a) Postu finko batetik txori txikiak (fringilidoak) ehizatzea.
b) Haztegiko animaliak askatzea, berehala ehizatzeko.
c) “Hegazti kantariak” (fringilidoak) harrapatzea eta atxikitzea, erakusteko, ugaltzeko eta kanturako.

**147. “Arku bidezko ehizak”:**

a) Ez du behar ehiza-lizentziarik.
b) Ehiza-lizentzia eta lizentzia berezi bat edukitzea eskatzen du.
c) Debekaturik dago Iberiar penintsulako zati handi batean, Euskadin barne.

**148. Ondokoa da hegazti harrapari bidezko ehiza edo “falkoneria”:**

a) Hegazti harrapariak trebatzea eta erabiltzea, ehizarako.
b) Hegazti harrapariak erabiltzea, korbidoak ehizatzeko erakartze-metodo gisa.
c) Hegazti kantariak (fringilidoak) harrapatzea eta atxikitzea, erakusteko.

**Debekuak, delituak eta arau-hausteak**

**149. Aire konprimituko karabinekin:**

a) Lizentziarik gabe ehiza daiteke.
b) Debekaturik dago ehizatzea.
c) Txori txikiak ehizatzen dira, postu finko batetik.

**150. 22 kalibreko errifleekin:**

a) Debekaturik dago ehizatzea.
b) Ehiza larria bakarrik egin daiteke.
c) Azeria bakarrik ehiza daiteke.

**151. Posta-kartutxoekin, hau da, 4,5 mm-tik gorako perdigoiekin:**

a) Basurdea eta azeria bakarrik ehiza daitezke.
b) Basurdea bakarrik ehiza daiteke.
c) Debekaturik dago ehizatzea.

**152. Posta-kartutxoak, hau da, 4,5 mm-tik gorako perdigoiak:**

a) Debekaturik daude ehizarako, bai erabiltzea baita edukitzea ere.
b) Debekaturik daude basurde-ehizarako, baina komeni da kartutxoren bat eramatea, basurdearen ordez azeria irteten bada ere.
c) Bala baino askoz munizio eraginkorragoa eta seguruagoa da, ehiztariak beti berekin eraman behar lukeena.

**153. Ondokoetatik, zein dago debekatuta?**

a) Perdigoiekin ehizatzea azeria.
b) Perdigoi-kartutxoekin jardutea ehizan, ehiza larriko modalitateetan.
c) Balaz ehizatzea, “itxarote/zelatatze” modalitatean, basurdea.

**154. Ibilgailu motordunekin egindako ehiza:**

a) Onartuta dago.
b) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.
c) Debekaturik dago.

**155. Apeu bizi itsutuekin edo elbarrituekin egindako ehiza:**

a) Debekaturik dago.
b) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.
c) Onartuta dago.

**156. Apeutzat magnetofono-zintak erabilitako ehiza:**

a) Onartuta dago.
b) Debekaturik dago.
c) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.

**157. Apeu mekaniko edo elektriko bidezko ehiza:**

a) Onartuta dago.
b) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.
c) Debekaturik dago.

**158. Gailu argidunekin egindako ehiza:**

a) Debekaturik dago.
b) Onartuta dago.
c) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.

**159. Gauez tiro egiteko ikusgailuekin ehizatzea:**

a) Debekaturik dago.
b) Onartuta dago.
c) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.

**160. Jakiak erabilita ehizatzea:**

a) Onartuta dago.
b) Debekaturik dago.
c) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.

**161. Substantzia pozoitsuak erabilita ehizatzea:**

a) Debekaturik dago.
b) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.
c) Onartuta dago.

**162. Substantzia paralizatzaileekin egindako ehiza:**

a) Onartuta dago.
b) Debekaturik dago.
c) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.

**163. Substantzia uxagarriekin eta erakarleekin egindako ehiza:**

a) Debekaturik dago.
b) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.
c) Onartuta dago.

**164. Nahiz eta kargadoreak edukiera handiagoa izan, zenbat kartutxo eduki ditzake, ehiza-egun batean, arma erdiautomatiko batek, gehienez?**

a) 2 kartutxo: bat errekamaran, eta bestea, kargadorean.
b) 3 kartutxo: bat errekamaran, eta bi, kargadorean.
c) 3 kartutxo kargadorean, errekamaran beste bat egon edo ez; hau da, lau kartutxo adina, armaren barnean.

**165. "Fortuna-egunetako" ehiza:**

a) Onartuta dago.
b) Lizentzia berezi bat edukiz gero onartzen da.
c) Debekaturik dago.

**166. Ondoko egunetatik, zeinetan dago debekatuta ehizatzea?**

a) Jai egunetan.
b) "Fortuna-egunak" deritzetenetan.
c) Igande ez diren estatu mailako jaiegunetan.

**167. Sute bat denean, ehiza al daiteke?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Batzuetan.

**168. Uholdeetan, baimentzen da ehiza, aiseago harrapa baitaitezke ehizakiak:**

a) Autonomia erkidego batzuetan soilik.
b) Egia.
c) Gezurra.

**169. Ondokoetatik, zein ehiza modalitate dago baimenduta?**

a) Orein-zelatatzeak.
b) Basurde uxaldian erbia ehizatzea.
c) Itxarote modalitatean oilagorra ehizatzea.

**170. Arauzko markak dituzten uso mezulariei edo kirol-usoei tiro egitea:**

a) Egin daiteke, baldin eta beren usategitik 500 metrora baino gehiagora badaude.
b) Egin daiteke, baldin eta beren usategitik 1.000 metrora baino gehiagora badaude.
c) Debekaturik dago.

**171. Postu finko batetik paseko usoak eta birigarroak ehizatzean, debekaturik dago:**

a) Postura iritsitakoan arma zorrotik ateratzea.
b) Armak zorrotik aterata postutik postura joatea.
c) 8 zenbakikoa baino handiagoko perdigoiarekin tiro egitea.

**172. Gibel-lerroan ehizatzea:**

a) Baimenduta dago ehiza larrian.
b) Baimenduta dago ehiza xehean.
c) Debekaturik dago, bai ehiza larrian, bai ehiza xehean.

**173. Basurde-uxaldi batean, debekatu egiten da gibel-lerroan ehizatzea; kasu horretan, ondokoak hartuko dira gibel-postutzat:**

a) Hurbileneko arma-lerrotik 250 metrora baino gutxiagora kokatuak.
b) Hurbileneko arma-lerrotik 500 metro baino gutxiagora kokatuak.
c) Hurbileneko arma-lerrotik 1.000 metrora baino gutxiagora kokatuak.

**174. Ehiza xehean, zenbateko distantziara daude, gibel-lerroak edo gibel-postuak, hurbileneko eskopeta-lerrotik?**

a) 100 metrora.
b) 250 metro baino gutxiagora.
c) 500 metro baino gutxiagora.

**175. Besteren lurretako ehizakiak ikaratzea, larritzea, erakartzea edo izutzea, edo haien berezko ohiturak aldatzea:**

a) Legezkoa da, erabilera arrunteko ehiza-lur bati egin nahi bazaio mesede.
b) Legezkoa da, zainpeko ehizako gune bati egin nahi bazaio mesede.
c) Debekaturik dago.

**176. Zigor Kodeak isun handiak, bost urteraino ere ehiza-lizentzia kentzea eta kartzela-zigorrak aurreikusten ditu:**

a) Arriskuan diren espezieak ehizatzen dituztenentzat, eta ehiza-araubide bereziko lurreko ehiza-ondarea larriki kaltetzen duenarentzat.
b) Baimendu dioten ale kopurua gainditzen duenarentzat.
c) Munizio debekatua erabiltzen duenarentzat.

**177. Zigor Kodeak, gainera, isun handiak eta kartzela-zigorrak ezartzen dizkio ondokoari:**

a) Ehiza-txakur bat jipoitzen duenari, baldin eta hura berea ez badu.
b) Ehiza-barruti batean haztegiko animaliak askatzen dituenari.
c) Espezie arrotzeko animaliak sartzen edo askatzen dituenari, eta etxe-abereak basaki jipoitzen dituenari.

**178. Euskal Autonomia Erkidegoko Ehiza Legearen arabera, arau-hauste larri bat edo oso larri bat egin duenari:**

a) Urte batzuez debeka dakioke ehizatzea.
b) Ehizatzea debeka dakioke, baina denboraldi batez, gehienez ere.
c) Ez zaio debekatzen ehizatzea, baina bai isun bat ordainarazten.

**179. Ehiza Legeak agintzen du ehizarako gaitasun-proba gainditu behar dela, desgaikuntza-aldia amaitu ondoren.**

a) Gezurra da: ehiza-lizentzia lehenbiziko aldiz ateratzen dutenek bakarrik egin behar dute ehizarako gaitasun-proba.
b) Egia da, bi urtean hiru arau-hauste oso larri egiten dituzten pertsonentzat.
c) Egia da, bi urtean arau-hauste oso larri bat egiten duten pertsonentzat.

**180. Euskal Autonomia Erkidegoko Ehiza Legearen arabera, nolako arau-haustea da ehiza-zorroaren edukia, erabilitako munizioa edo ibilgailuen barnea ez erakustea?**

a) Larria.
b) Arina.
c) Oso larria.

**Ehizakien garraioa, merkaturatzea eta kontsumoa**

**181. Merkatura daitezkeen ehiza-espezieak:**

a) Espezie migratzaileak eta ehiza larriko ehizakiak bakarrik merkatura daitezke.
b) Ehizatzeko modukotzat izendatutako espezie guztiak sal daitezke.
c) Ezin dira merkaturatu ehizatzen diren espezie guztiak.

**182. Ondoko ehiza-espezieetatik, zein ezin dira merkaturatu Euskadin?**

a) Basurdea eta oreina.
b) Oilagorra eta istingorrak.
c) Eper gorria eta pagausoa.

**183. Ondoko ehiza-espezieetatik, zein merkatura daitezke Euskadin?**

a) Pagausoa.
b) Oilagorra.
c) Birigarroak.

**184. Ehiza bizia garraitzeko eraman behar da:**

a) Adarren oinarrian ezarritako zigilu bat.
b) Belarrietan ezarritako krotaloak.
c) Albaitariak egindako garraio-agiri bat.

**185. Ehiza-debekualdietan, debekaturik dago ondokoak garraiatzea, orokorki:**

a) Su-armak.
b) Bala motako munizioak; perdigoizko kartutxoak bakarrik garraia daitezke.
c) Ehizaki hilak, salbu ehiza-haztegietakoak eta ehiza industrialeko eremuetakoak direnean.

**186. Ehizaki-garraioari dagokionez, zein da egia ondoko baieztapen hauetatik?**

a) Ez da inongo mugarik animaliak garraiatzeko.
b) Leku batzuetan, zigilu-sistemak ezartzen dira ehiza larriko espezie batzuentzat.
c) Ehizaki-garraioa debekualdietan soilik mugatzen da.

**187. Administrazio batzuek ehiza larriko ehizakiak zigilatu beharra ezartzen dute; kasu horietan, noiz eraman behar du jarrita zigilua animalia hilak?**

a) Errepidez garraiatzean bakarrik.
b) Garraiatzen dutenean, bai mendian, bai handik kanpo.
c) Bota dutenetik ibilgailuan sartzen duten arte, eta orduantxe ken dakioke.

**188. Nori dagokio ehizaki-haragia kontsumorako egokia dela bermatzea?**

a) Ehizatzeko unetik haragia kontsumitzen den arte prozesuan esku hartzen duten pertsona guztiei.
b) Haragia azkeneko aldiz manipulatzen duenari, hots, jatetxe-jabeari edo merkatariari.
c) Ehizakia saltzen duenari bakarrik.

**189. Nahiz eta ez den nahitaezkoa ehizaki-haragiak aztertzea ehiztariaren familian edo lagunartean kontsumitu behar direnean, bai komeni dela albaitariak zenbait azterketa egitea, bereziki ondoko eritasunak detektatzeko:**

a) Basurdearen tularemia, eta erbiaren eta untxiaren trikinosia.
b) Basurdearen trikinosia eta erbiaren tularemia.
c) Untxiaren mixomatosia eta eper gorriaren trikinosia.

**190. Ehizakiak larrutzean eta ondoren manipulatzean:**

a) Nahitaezkoa da albaitari bat hor izatea.
b) Nahitaezkoa da harakin aditu batek esku hartzea.
c) Gomendagarria da eskularruak eta maskarak erabiltzea.

**191. Eritasunik kutsa ez dadin, basa-animalien haragia:**

a) Behar bezala kozinatuta kontsumitu behar da.
b) Aski da izoztea, horrela birus eta bakterio guztiak akabatzen baititugu.
c) Animalia harrapatu eta handik egun batzuetara kontsumitu behar da, haragia egurasteko eta kutsatze-arriskua galtzeko.

**192. Mendian gabiltzala, animaliak hilik, edo zauri nahiz jokaera ezohikoekin ikusten baditugu:**

a) Hobe da handik ihes egitea eta beldurra zabal dadin saihestea.
b) Akabatu eta lurperatu egin behar dira berehala animaliok.
c) Ehizaren eta animalia-osasunaren ardura duten agintariei jakinaraziko diegu lehenbailehen.

**Ehiztarien ordezkaritza eta ehiza trofeoen homologatzea**

**193. Euskal Autonomia Erkidegoko Ehiza-trofeoak Homologatzeko Batzordeak:**

a) Homologa ditzake, bakarrik, Euskal Autonomia-erkidegoan ehizatu diren animalien trofeoak.
b) Homologa ditzake beste lurralde batzuetatiko trofeoak, jabeek halaxe eskatuta.
c) Batzorde hori ez da esistitzen.

**194. Ehiza-kontseiluetan hartutako akordioak:**

a) Lotesleak dira.
b) Ez dira lotesleak.
c) Duten garrantziren arabera, a) edo b) izan daitezke.

**195. Ondokoak dira ehiza-kontseiluaren eginkizunak:**

a) Ehiza-lizentziak ematea.
b) Arau-hausteak zigortzea.
c) Organo eskudunari aholkuak eta proposamenak egitea ehiza arloan.

**196. Homologazio ofiziala jasotzeko, zein ehizaki-zati hartzen dira ehiza-trofeotzat?**

a) Azeriaren letaginak.
b) Orkatz-adar osoak (berrituak), burezurrarekin edo gabe.
c) Oreinaren adarrak, burezurrari edo haren zati bati itsatsirik.

**197. Euskal Autonomia Erkidegoko Ehiza-trofeoak Homologatzeko Batzordeakerabiltzen dituen irizpideak:**

a) Autonomia du gustokoen dituenak erabiltzeko.
b) Bateragarriak izan behar dute Ehiza eta Basa-faunaren Babeserako Nazioarteko Kontseiluak ezarritakoekin.
c) Hemen eskuratutako trofeoak homologatzeko autonomia du; kanpotik ekarritakoak homologatzeko, Ehiza eta Basa-faunaren Babeserako Nazioarteko Kontseiluaren irizpideei jarraitu behar die.

3. EHIZA ANTOLAMENDUA

**198. 1960an, 300.000 ehiza-lizentzia ziren estatuan; 90eko hamarkadan, aldiz:**

a) Erdia baino gehixeago; lizentziak berrehun mila inguru (175.000) ziren.
b) Gehixeago; lizentziak milioi erdi inguru (500.000) ziren.
c) Askoz gehiago; lizentziak milioi eta erdi inguru (1.500.000) ziren.

**Populazioen funtzionamendua eta ehiza garaiak**

**199. Ehiza-espezieek aldaketa handiak izaten dituzte kopuruetan urteetan zehar:**

a) Ehiza hilkortasun-faktoreetako bat da.
b) Ehiza da populazioan hilkortasuna sortzen duen faktore bakarra.
c) Ehizak ez du hilkortasun esanguratsurik sortzen, eta aintzat hartu beharrik ere ez dago kudeaketan.

**200. Harrapariek funtzio bat dute ekosisteman. Zein ehizatzen dituzte nagusiki?**

a) Populazioko alerik onenak eta trofeorik onenak dituztenak.
b) Ugaltzailerik onenak, hots, populazioaren geroa bermatzen dutenak.
c) Ahultasunagatik, gaitzengatik edo adinagatik gauzaezen eta harrapaerrazen diren aleak.

**201. Ez bada ongi kalkulatzen edo zaintzen ehiza-presioa, ehizakien populazioa arriskuan jar daiteke:**

a) Egia: ehiza-lurraren ezaugarrietara egokitu behar da ehiza-presioa.
b) Baieztapen hori gezurra da: egia esan, ehiza sekula ez da arriskua populazioarentzat.
c) Baldin eta ehizan jarraitu nahi badugu, ia anekdotiko izateraino urritu behar ditugu harrapariak.

**202. Urteko zein garaitan izango da eper gorri gehiago ehiza-barrutian?**

a) Ugalketaren ondoren (uda).
b) Lehen ehiza-egunean (udazken-hasiera).
c) Neguan, Erdialdeko Europako ale negutarrak iristen direnean.

**203. Animalia batzuek estrategia gisa erabiltzen dute migrazioa, eta joan-etorriko bidaiak egiten dituzte ondokoetara:**

a) Inork erasotzen ez dien, ehiza debekatuta dagoen eta lasaiago egoten diren leku batzuetara.
b) Urteko garai batzuetan janari- eta klima-baldintzarik onenak diren leku batzuetara.
c) Ibar-hondora, neguan, eta mendi-gainetara, udan.

**204. Migrazioa bizi-estrategia bat da, non joan-etorriko bidaiak egiten diren urteko garai batzuetan janari- eta klima-baldintzarik onenak diren leku batzuetara:**

a) Hegaztiek bakarrik migratzen dute.
b) Hegaztiek eta arrain batzuek (adibidez, izokinak) bakarrik migratzen dute.
c) Nahiz eta hegaztiek egiten dituzten migraziorik ezagunenak, badira beste espezie migratzaile batzuk ere, hala nola saguzarra, baleak edo izokina.

**205. Non ezartzen dira ehiza-aldiak?**

a) Ehiza Legean.
b) Ehiza Arautegian.
c) Debekualdien Aginduetan.

**206. Ehiza-aldiak edo ehiza legezkoa den garaiak:**

a) Berdinak dira 3 lurralde historikoetan.
b) Aldatu egiten dira urtetik urtera.
c) Ez dute funtsik, urte osoan ehiza baitaiteke.

**207. Ehiza-aldiak mugatuak izatearen arrazoi nagusia da:**

a) Ez dela ehizatu behar ugalketa eta haziera garaietan.
b) Ehiza-hegazti guztiek migratzen dute, eta, beraz, aste gutxi batzuk bakarrik ematen dituzte gure artean.
c) Betidanik, udazkena izan dugu ehizara, perretxikotara, etab. joateko garairik maiteena.

**208. Noiz izan ohi da ehiza xeherako denboraldia edo ehizaldi ireki orokorra?**

a) Uda-amaieran.
b) Udazkenean eta negu-hasieran.
c) Neguko hiletan.

**209. Debekualdi erdiko ehiza-denboraldia:**

a) Udaberrian eta udazkenean izaten da.
b) Udan izaten da, eta hilabete inguru irauten du.
c) Udako hiru hiletan izaten da.

**210. Noiz izan ohi da ehiza larrirako denboraldia edo ehizaldi ireki orokorra?**

a) Udazkenean eta neguko lehen erdian.
b) Neguko hiru hiletan.
c) Urte osoan.

**211. Udaberri-udan, denboraldi berezi bat ezartzen da orkatzarentzat, sarrioarentzat eta basahuntzarentzat, eta, hor, honako ehiza hauek baimentzen dira:**

a) Uxaldi eta monteria motakoak.
b) Adarrik gabeko arrena eta emeena bakarrik.
c) Arrena ia bakarrik, eta zelatatze modalitatean.

**212. Zergatik ez dira ehizatzen orkatz arrak neguan?**

a) Adarrak neguan garatzen zaizkielako.
b) Araldia abendua eta urtarrila bitartean izaten delako.
c) Adar-erortzea edo -galtzea urtarrilean izaten delako.

**Ehiza planifikazioa**

**213. Ehiza-planifikazioak ehizaren izaera jasangarria ziurtatu nahi du. Zer esan nahi du horrek?**

a) Ahalik eta animalia gehien harrapatu behar dela, denboraldi bakoitzean aurrekoan baino gehiago ehizatu behar dela.
b) Irizpide sendoak ezarri behar direla, egungo aprobetxamenduek etorkizunekoak arriskuan jar ez ditzaten.
c) Ehiza-barrutien alokatze-kostuak ahalik eta garestien atxiki behar direla, euskal landa-biztanleen onuragarri.

**214. Zein da ehiza-planifikazioko tresna nagusia?**

a) Ehiza Antolamendurako Plan Teknikoa.
b) Harrapariak Kontrolatzeko Plana.
c) Ehiza-egunen Plana, egutegian ehiza-egunak ez batzeko eta denboraldiak onartzen dituen ehizaldi guztietara joateko.

**215. Nork onartzen ditu Ehiza Antolamendurako Plan Teknikoak?**

a) Foru Aldundiak.
b) Eusko Jaurlaritzak
c) Ehiza Kontseiluak.

**216. Zein da ehiza-plan baten eraketako funtsezko hiru faseen hurrenkera zuzena?**

a) Planifikazioa, jarraipena eta inbentarioa.
b) Jarraipena, planifikazioa eta inbentarioa.
c) Inbentarioa, planifikazioa eta jarraipena.

**217. Ehiza-antolamendu batek teknikarien laguntza behar izateko adinako konplexutasuna du:**

a) Ehiztariak alde batera utz daitezke, ez dute parte hartu behar kudeaketa-lanetan.
b) Ehiza elkarteak presidenterik edo arduradunik ez duenean bakarrik hartu behar dute parte teknikariek kudeaketan.
c) Helburuak iristeko, aholkularitza teknikoa eta ehiztarien nahiz basozainen partaidetza behar dira.

**218. Inbentarioa da ehiza-planaren lehen fasea, eta hauxe da zehazki:**

a) Ehiza-barruti batean gutxi gorabehera zenbat ehiza dagoen kalkulatzea, tokiko pertsona jakitun ugariri galdetuta.
b) Aprobetxatu nahi den populazioaren tamainari buruz eta populazioaren bizilekuaren kalitateari buruz ahal den informaziorik gehien biltzea.
c) Ehizakiak harrapatzeko eta haien bizilekua hobetzeko plan bat ezartzea.

**219. Zer da “errolda” bat egitea?**

a) Ehiza larriko modalitate bat, “kakoa” modalitatetik datorrena, eta uxaldi handiak antolatu ezin diren lekuetan erabiltzen da.
b) Ehiza-planaren funtsezko atal bat, eta ehiza-lur batean egin daitezkeen ehiza-egunak kalkulatzea du xede.
c) Ehiza-populazioen tamaina ezagutzea bilatzen duen inbentario atala.

**220. Ehiza-espezieak bizi diren bizilekuaren (habitata) kalitateak:**

a) Ehiza-barrutian ehizazain bat eduki beharra edo ez eragiten du, legez.
b) Populazioen tamainan eragiten du, eta, beraz, ehizan ere bai.
c) Ez du eragiten hango populazioen kalitatean, zeren guztia animalia harraparien populazioen mendean baitago funtsean.

**221. Eper gorriaren ehizan, zuzenean ugaltze-arrakastaren mendean daude urteko harrapaketak. Orientabide gisa, ez ehizatzea gomendatzen da, baldin eta, ehiza aurretik, gazteak zati helduak eginda emaitza ondokoa baino txikiagoa bada:**

a) 1,5 (3 gazte 2 helduko).
b) 3 (6 gazte 2 helduko).
c) 4,5 (9 gazte 2 helduko).

**222. Eper gorriaren ehizan, zuzenean ugaltze-arrakastaren mendean daude urteko harrapaketak. Orientabide gisa, denboraldiaren aurretik ziren aleen erdia ere (% 50) ehiza daiteke, baldin eta gazteak zati helduak eginda emaitza ondokoa bada:**

a) 1 (2 gazte 2 helduko).
b) 2 (4 gazte 2 helduko).
c) 3 (6 gazte 2 helduko).

**223. Ehiza kupoak ezartzea da ehiza-planifikazioko helburuak iristeko funtsezko tresna bat. Zer da ehiza kupo bat?**

a) Denboraldi bakoitzean ehiztariak dauzkan ehiza-egunak mugatzea da kupoa.
b) Ehizaldi batean, egun batean, denboraldi batean… ehiza daitekeen gehienezko ale kopurua da kupoa.
c) Ehizan jardun daitekeen denborarik luzeena da kupoa, eta egunean jardun daitekeen ordu kopuruan edo ordutegi bat ezarrita adierazten da.

**224. Harrapari "orotarikoak" edo "oportunistak" ondokoak dira:**

a) Arranoak, eper gorri talde osoak akabatzen baitituzte.
b) Azeria eta belea, askotariko baliabideak erabiltzen baitituzte.
c) Hartza eta katamotza, aukera duten guztietan kalte egiten baitute.

**225. Ehiza-planifikazioak erantzun zehatz bat dauka harrapari jakin batzuen eragina urritzeko: legez kontrolatzen ditu harrapariok, ehiza eta ondokoak erabilita:**

a) Metodo masiboak eta ez-selektiboak.
b) Pozoiak eta zepoak.
c) Metodo selektiboak eta ez-masiboak.

**226. Zer dira ehiza-birpopulatzeak?**

a) Ehiza-barrutietan animalia exotikoak sartzea.
b) Haztegiko animaliak askatzea, berehala ehizatzeko.
c) Animalia batzuk askatzea, espezie zehatz horretako leku bateko populazioak indartzeko.

**227. Nola definituko zenuke ehiztariak ehiza-planaren kudeaketan eta jarraipenean daukan eginkizuna?**

a) Alde batera uzteko modukoa da, ehiza-barrutia 500 hektareatik gora ez bada.
b) Garrantzitsua eta funtsezkoa da beti.
c) Ez da gomendagarria, ehiztaria alderdi interesdun bat baita ehizan.

4. EHIZA ESPEZIEAK

**Antzara, basahatea eta beste ehiza anatido batzuk**

**228. Antzara uretako hegazti bat da, tamaina handikoa, eta:**

a) Lumajea grisaxka, mokoa laranja-kolorekoa eta hankak arrosak ditu.
b) Lumajea berdexka, mokoa urdina eta hankak arrosak ditu.
c) Lumajea arrea, mokoa arrosa eta hankak berdeak ditu.

**229. Hegan doazela, antzara arra eta emea bereizteko:**

a) Begiratu behar da emeak txikiagoak eta arreak direla, eta, aldiz, arrek kolore biziagoak eta distiratsuagoak dituztela, eta burua berdea dutela.
b) Arrak handiagoak diren arren, espezieak ez du sexu-dimorfismorik, eta arra eta emea kasik berdinak dira.
c) Antzarak etxeko antzararen ahaide dira, eta ez dute hegan egiten.

**230. Antzara uretako animalia bat da, eta ondokoak jaten ditu:**

a) Landareak, batik bat.
b) Haragia, batik bat.
c) Ezkurrak eta pagatxak.

**231. Antzarak:**

a) Euskadin ugaltzen dira, eta Saharaz hegoaldean ematen dute negua.
b) Euskadin zehar migratzen dute, “V” erako egitura ezagunak sortzen dituztela.
c) Uretako espezie bat dira, eta debekualdi erdian ehizatzen dira.

**232. Iberiar penintsulan, antzara hankagorriztaren negupasa:**

a) Hamarreko batzuetara mugatzen da, eta Urdaibaiko itsasadar bizkaitarrean biltzen dira.
b) Euskadiko itsasertzean kontzentratzen da nagusiki.
c) Guadalquivir ibaiko paduretan eta Villafáfilako (Zamora) urmaeletan kontzentratzen da nagusiki.

**233. Basahateak sexu-dimorfismoa du:**

a) Arrek isats luzea dute bereizgarri.
b) Emeek berdexka dute burua, eta beltza, popa; arrak, aldiz, arreak dira.
c) Emeak arreak dira, eta arrak, oso koloretsuak, eta berdexka dute burua.

**234. Hegan doazela, bereiz al daitezke basahate arra eta emea?**

a) Bai, arrek berde ilunak dituzte burua eta lepoaren goialdea, lepoko zuri bat dute, eta bularra, gaztaina-kolorekoa; emeak ez dira hain ikusgarriak, eta kolore arrea dute.
b) Bai, emeek berdea dute burua, eta bularra, gaztaina-kolorekoa; arrak ez dira hain ikusgarriak, eta kolore arrea dute.
c) Ezin dira bereizi, eta gutxiago, hegan, ez baitute sexu-dimorfismorik.

**235. Habia egiteko, landaretzak babestutako eta gune hezeen inguruko tokiak bilatzen ditu basahateak:**

a) Ez, basahateak uretatik urrun hazten ditu kumeak, ez baita uretako hegaztia.
b) Bai, eta makaldietako adar gorenetako urkiletan jartzen du habia.
c) Bai, eta era askotako tokietan (soroetan, lezkadietan, zuhaitzetako hutsuneetan…) jartzen du habia.

**236. Kumeak hazi ondoren, basahateak talde handietan biltzen dira lumak berritzeko:**

a) Basahateek hegan egiteko gaitasuna galtzen dute aldi batez.
b) “Urdinaldia” deitzen da hori, basahate taldeek kolore urdinxka baitute urrundik ikusita.
c) Ez da egia, basahateak hegazti bakartiak dira, eta migratzeko bakarrik elkartzen dira.

**237. Anatidoen edo ehiza daitezkeen ahateen artean, basahatea nabarmentzen da:**

a) Kumeak Euskadin hazten dituen ahate bakarra delako.
b) Euskadin bakarrik ugaltzen baita, Europan.
c) Ezagunena eta arruntena baita, eta ehiza daitezkeen ahateetatik handienetako bat.

**238. Zertzeta arrunta ahate txiki bat da; arina, hegan, eta bizi-bizia:**

a) Urdinxka ere deitzen zaio, kolore urdinxkako ispilu bat baitu.
b) Ispilu berde distiratsu bat du, luma beltzez inguratuta.
c) Hegoan ispilurik ez duen ahate bakarra da.

**239. Zertzeta arruntak sexu-dimorfismo nabarmena du; arrak emeengandik bestelakoak dira:**

a) Arrak ispilu berde distiratsu bat du, eta emeak, marroia.
b) Arrak gaztaina-kolorekoak edo gorriztak ditu buru-lepoak, eta zerrenda berde bat dauka begiaren inguruan.
c) Emeak gaztaina-kolorekoak edo gorriztak ditu buru-lepoak, eta zerrenda berde bat dauka begiaren inguruan.

**240. Zertzeta arruntaz:**

a) Oso gutxi dakigu nola bereizi arrak eta emeak.
b) Arrak txitatzen ditu arrautzak, normalean.
c) Esan daiteke paseko hegazti bat dela, negutar arrunta Euskadiko hezeguneetan, eta noizean behin Iberiar penintsulan hazten dituela kumeak.

**241. Erraz identifikatzen da udako zertzeta arra:**

a) Burua eta lepoa gaztaina-kolorekoak edo gorriztak baititu, eta begiaren inguruan zerrenda berde bat baitauka.
b) Haren lepoko zuriak alde handia baitu buruko berde ilunarekin eta gaztaina-koloreko bularrarekin.
c) Bekain zuri ikusgarri bat baitu, buru eta lepo arreekin oso alde handia daukana.

**242. Honako hau esan daiteke udako zertzetaren migrazioaz:**

a) Euskadin, migrazio-paseetan (batez ere, udaberrikoan) soilik aurki daiteke, eta bakan.
b) Hura da udazkenean Euskaditik igarotzen diren ahateetatik ugariena.
c) Oso urria da, zeren Euskadin hazten diren alerik gehienek Euskadin bertan ematen baitute negua.

**243. Udako zertzeta ez da oso ugaria ehiza-garaian:**

a) Gezurra: udako zertzeta ugari ehizatzen dira Euskadin eta Iberiar penintsula osoan.
b) Eta ez da oso ulergarria, hura baita ahaterik ugarienetako bat ugaltze-garaian.
c) Jakina, nola Saharaz hegoaldean ematen duen uda, oso zaila da ehiza-denboraldian ikustea.

**244. Hegan doala ipar-ahate bat bereizteko, haren tonu grisaxkei eta popa beltzari begiratu behar zaie, eta hegoetan dituen ispiluei. Ispilu horiek:**

a) Berdeak dira.
b) Zuri-beltzak dira.
c) Urdinak dira, basahatearengan bezala.

**245. Ipar-ahate emea:**

a) Arraren berdina da.
b) Ispilu zuri-beltz bat du, eta horrek bereizten du arrarengandik, arrak urdina baitu.
c) Basahate emearen antzekoa da, baina lirainagoa eta kolore argiagokoa, eta mokoa iluna du, ertz gorrixkekin.

**246. Ipar-ahatea:**

a) Pasekoa eta negutarra da Euskadin, urria, eta gutxi ugaltzen da.
b) Nasaiki ugaltzen da Euskadiko itsasertzean, eta Ipar Europan ematen du negua.
c) Asko ehizatzen da Euskadin, gure lurraldea baitu negua igarotzeko toki nagusia Iberiar penintsulan.

**247. Ahate txistulari arrak:**

a) Emeen berdinak dira; kolore arrekoak, oro har.
b) Berde ilunak dituzte burua eta lepoa, eta lepoko zuri berezi bat daukate.
c) Gaztaina-kolore gorrixkakoak dituzte burua eta lepoa, eta kopeta nahiz pileoa, krema-kolorekoak.

**248. Ahate txistulariak:**

a) Bere moko luze bereziagatik dauka izen hori, oso moko handia baita hegaztiaren gorputz txikiaren aldean.
b) Araldian, emearen atzetik dabilenean, egiten duen dei bereziagatik dauka izen hori.
c) Hegan doala bere hegaketa biziagatik sortzen duen “txistu-hots” bereziagatik dauka izen hori.

**249. Ahate txistularia hegazti bakana da ehiza-denboraldian:**

a) Guadalquivir ibaiko paduretan eta Villafáfilako (Zamora) urmaeletan bakarrik ematen baitu negua.
b) Ez da egia: negutar gisa, euskal itsasertzeko anatidorik arruntena eta ugariena da.
c) Euskadin kume ugari hazi arren negua Afrikan ematen duelako da hori.

**250. Ahate buztanluzea ur azaleko ahate dotore eta lirain bat da, lepo luzea eta buztan zorrotza dituena:**

a) Arrak gaztaina-kolore ilunekoak ditu burua eta eztarria, eta zuria du bularra.
b) Arra eta emea berdinak dira, eta gaztaina-kolore ilunekoak dituzte burua eta eztarria, eta zuria dute bularra.
c) Ez, buztanluzea ez da ur azaleko ahate bat, baizik eta murgilaria, mottoduna bezala.

**251. Honako honi deitzen zaio buztanluze:**

a) Erbi arrari.
b) Arrak buztan luze eta zorrotz bat duen ahate espezie bati.
c) Buztanik ez duen ahate mota bati.

**252. Euskadin, ahate buztanluzeak:**

a) Kume ugari hazten ditu itsasertzeko hezeguneetan.
b) Kume ugari hazten ditu barnealdeko hezeguneetan eta urtegietan.
c) Paseko hegaztia eta negutar bakana da itsasertzeko hezeguneetan eta barnealdeko uretan.

**253. Ahate mokozabalak "espatula" erako moko handia dauka, eta arrak, kontrastez betetako lumajea:**

a) Sabela eta saihetsak gaztaina-kolore gorrixkakoak; burua, berde iluna, eta bularra, zuria.
b) Sabela eta saihetsak gaztaina-kolore gorrixkakoak; burua, berde iluna; bularra, gaztaina-kolorekoa, eta lepoa, zuria.
c) Sabela eta saihetsak gaztaina-kolore gorrixkakoak, eta burua, arrea, "begi-mozorro" berde ilun batekin.

**254. Ahate mokozabal izena:**

a) Mokoaren formari zor zaio; euri-egunetan, habiako ura husteko erabiltzen du moko hori.
b) Mokoaren formari zor zaio; fruta oskoldunak apurtzeko erabiltzen du..
c) Mokoaren formari zor zaio; tresna bikaina da hura, ur txikietan eta lokaztietan jana iragazteko.

**255. Ahate mokozabala:**

a) Arrunta da Euskadin ugaltzaile gisa, eta bakana, negutar gisa.
b) Arrunta da Euskadin, pase- eta negu-garaian, bereziki Arabako urtegietan.
c) Paseko hegazti bat da Euskadin, eta ez da ugaltzen inon, Iberiar penintsulan.

**256. Ahate gorrizta gorputz sendoko ahate bat da:**

a) Ez du sexu-dimorfismorik, hau da, arra eta emea ezin dira bereizi.
b) Sexu-dimorfismo nabaria du; emeek gaztaina-kolore gorrixkakoa dute burua, eta bularra, lepoa eta popa, beltza, saihets zuriekin.
c) Sexu-dimorfismo nabaria du; arrek gaztaina-kolore gorrixkakoa dute burua, eta bularra, lepoa eta popa, beltza, saihets zuriekin.

**257. Honegatik dauka ahate gorrizta izena:**

a) Ehiza daitekeen moko gorriko ahate bakarra delako.
b) Bularreko zuriarekin kontrastea egiten duen saihets arre-gorriztengatik.
c) Arras taldekoia delako lumak berritzean, une horretan taldeek kolore hori hartzen baitute.

**258. Ahate gorrizta:**

a) Euskadi osoan banatuta ugaltzen da, eta ehiza daitekeen espezie garrantzitsu bat da gurean.
b) Maiz ikus daiteke Euskadin, migrazio-paseetan, baina gutxitan negutar gisa.
c) Oso anatido ugaria da negutar gisa Euskadin, bereziki itsasertzeko hezeguneetan.

**259. Murgilariak:**

a) Ez du ur azaleko ahateek duten ispilu tipikoa.
b) Ur azaleko ahateak dira.
c) Itxura trinkoko eta hondoratuko ahateak dira; buztana urari itsatsita dute, eta hegoetako ispilua, gorrixka.

**260. Murgilari arruntarengan:**

a) Arrak eta emeak berdinak dira, hura baita sexu-dimorfismorik gabeko ahate bakarra.
b) Arrak arre-gorrixka du burua, eta gorputza, zuri-grisaxka; bularra eta popa beltzak ditu.
c) Kontraste handia da, arrarengan, gorputzaren zuri-grisaxkaren, eta hego arre eta ispilu urdindunen artean.

**261. Murgilari arrunta, izenak dioen bezala, ahate murgilaririk arruntena da:**

a) Euskadin, paseko hegaztia eta negutar arrunta da barnealdeko urtegietan.
b) Hala ere, Mediterraneoaren ertzeko toki batzuetan bakarrik ehiza daiteke.
c) Euskadiko urtegietan aurkitzen du kumeak hazteko toki nagusia, Iberiar penintsulan.

**262. Murgilari mottodunarengan, motto berezia nabarmentzen da:**

a) Kolore beltzekoa, arren burua, bularra eta popa bezala.
b) Kolore zurikoa, eta horrek alde handia sortzen du arren buru berde ilunarekin.
c) Kolore urdinekoa, zeina punta beltzeko moko halaber urdin batekin konbinatzen baita.

**263. Murgilari mottodun arrak:**

a) Buru arre-gorrixka du, eta gorputza, zuri-grisaxka; bularra eta popa, berriz, beltzak ditu.
b) Emearen berdina da: kolore arre iluneko eta saihets argiagoko ahate murgilari bat.
c) Lumaje beltza du, eta horrek alde handia sortzen du saihetsetako zuriarekin eta, hegan doala, hegoko zerrenda zuriarekin.

**264. Oso bakanetan harrapatzen dira murgilari mottodunak Euskadin:**

a) Nahiz eta hura izan ahate murgilaririk ohikoena ugaltzaile gisa.
b) Euskadin paseko hegazti bezala bakarrik agertzen delako da hori.
c) Nahiz eta maiz ematen duen negua barnealdeko urtegietan, eta gutxiagotan, itsasertzean.

**Kopetazuria, oilagorra eta beste ehiza lohietako batzuk**

**265. Honako hau du bereizgarri kopetazuri arruntak:**

a) Moko zuria, zeinak alde handia sortzen duen gorputzeko lumaje beltz-beltzarekin.
b) Moko hori eta gorria, zeinak alde handia sortzen duen gorputzeko lumaje beltz-beltzarekin.
c) Arren kolore orokor beltz-beltza eta moko zuria, eta horiekin alde handia duten emeen kolore arrea eta moko beltza.

**266. Kopetazuri arrunta, ihes egitean:**

a) Murgildu egiten da zenbait minutuz.
b) Jauzi bat egin, hegaldi indartsu bati ekin, eta oso gora igotzen da.
c) Nahiago du igeri joatea, plisti-plasta ibiltzea edo oso behean hegan egitea: ez da oso hegazti hegazalea.

**267. Euskadin, kopetazuri arrunt askok, ehunka bikotek, egiten dute habia:**

a) Nahiz eta ohikoagoak diren negutar gisa.
b) Baina ia ez dira ehizatzen, neguan ez baitute hegan egiten.
c) Halere, ez da maiz ehizatzen espeziea, udazkenean eta neguan ia ez baita alerik ere.

**268. Oilagorra hegazti potxoloa da; luzea du mokoa, eta lumajea:**

a) Burua, berde iluna, eta koilarea, zuri-zuria.
b) Burua eta bizkarraldea, berdeak, eta bularra, zuria.
c) Gaztaina-kolorekoa eta zerrenda beltzak dituena, tonu okre batzuekin konbinatuta.

**269. Oilagorraren adina jakiteko, hegoetako luma handien (arraun-luma primarioak) higadurari begiratzen zaio, eta luma horiek estaltzen dituzten lumen koloreari:**

a) Helduen luma estaltzaileek kolore argiagoko zerrenda bat ageri dute muturrean.
b) Gazteen luma estaltzaileek kolore argiagoko zerrenda bat ageri dute muturrean.
c) Gazteek orban argi bat ageri dute azken bi arraun-lumen muturrean. Hegaztiak ezproi bat ageri badu hankan, ar gazte bat da.

**270. Oilagorra egunez eta gauez elikatzen da; orduan, zelaiak eta larreak bisitatzen ditu, eta honako hauek bilatzen:**

a) Batez ere, putzuak, ura edateko.
b) Batez ere, zizareak, bere moko luze eta sentibera erabilita harrapatzen baititu.
c) Batez ere, aleak eta haziak, bere moko luze eta sentibera erabilita aurkitzen baititu.

**271. Oilagorraren ugalketari dagokionez, otsailetik uztailera da kumeak hazteko garaia; emeak lurrean egiten du habia, toki oihantsuetan:**

a) 4 arrautza erruten ditu normalean.
b) Bina arrautzako 4 errunaldi egiten ditu.
c) Gainerako zangaluzeek bezala, 10 arrautza erruten ditu.

**272. Oilagorra:**

a) Hegazti sedentario edo ez-migratzailea da.
b) Nagusiki gauez migratzen du.
c) Soilik egunez migratzen du, talde handietan.

**273. Oilagorra:**

a) Gainerako zangaluzeak ez bezala, hegazti bereziki basotarra da.
b) Gainerako zangaluzeak bezala, soilik ordoki urtsuetan eta urtegietan aurkituko dugu.
c) Moko luzea du, beste hegazti zangaluze batzuen antzera, eta horrek salatzen du itsasbeheran itsasertza arakatzea atsegin duela.

**274. Oilagorrak:**

a) Euskal basoetan aurkitzen du kumeak hazteko gune nagusia, Iberiar penintsulan.
b) Migrazioan, pasean edo negupasan bakarrik bisitatzen du Euskadi, ez baita Iberiar penintsulan ugaltzen.
c) Iberiar penintsulako ipar-hereneko, Erdialdeko sistemako eta Iberiar sistemako basoetan hazten ditu kumeak noizean behin.

**275. Oilagorraren migrazioaz eta Euskadiz ari bagara:**

a) Uztailetik irailera heltzen dira Ipar eta Erdialdeko Europako ale ugari, eta abendura arte egoten hemen.
b) Martxotik maiatzera heltzen dira Ipar eta Erdialdeko Europako ale ugari, eta urri-hasiera arte egoten hemen.
c) Urritik abendura heltzen dira Ipar eta Erdialdeko Europako ale ugari, eta martxoa hasi arte egoten hemen.

**276. Oilagorra:**

a) Urritik urtarrilera ehizatzen da, Euskadira etortzen baita negua igarotzera.
b) Debekualdi erdian ehizatzen da, gero Afrikara baitoa negua igarotzera, Saharaz hegoaldera.
c) Otsailean eta martxoan ehizatzen da, kontrapasan, Ipar eta Erdialdeko Europara ugaltzera itzultzen ari denean.

**277. Oilagorra:**

a) Udazkeneko migrazioan edo "pasean” ehizatzen da, postu finkotik.
b) Saltatzean ehizatzen da, txakur erakusleen funtsezko laguntzaz.
c) Itxarote modalitatean ehizatzen da, basotik gaueko bazkalekuetara (zelaiak eta larreak) igarotzeko guneetan.

**278. Oilagorra saltatzean eta txakurrik gabe ehizatzea:**

a) Oso ohiko jarduera da.
b) Debekatutako jarduera da.
c) Legez, Iberiar penintsulako iparraldean bakarrik egiten den ehiza teknika da.

**279. Istingor arruntak 4 arrautzako errunaldi bat egiten du urtean:**

a) Lurrean egiten du habia, belarraren babesean.
b) Lurrean egiten du habia, gune oihantsuen babesean, oilagorrak bezala.
c) Ibai-ertzetako zuhaitzen hutsuneetan egiten du habia.

**280. Istingor arrunta:**

a) Ohikoa da pasean eta negupasan, bereziki itsasoaren ertzean.
b) Askotan egiten du habia Euskadin, bereziki itsasoaren ertzean.
c) Euskadiko itsasertzean aurkitzen du kumeak hazteko gune nagusia, Iberiar penintsulan.

**281. Istingor arrunta txakur erakusleen laguntzaz ehizatzen da:**

a) Baso mistoetan.
b) Larre eta zelai urtsuetan.
c) Soroetan, debekualdi erdian.

**282. Ondokoari deitzen zaio istingor txikia:**

a) Istingor arruntaren kumeari.
b) Istingor arrunt emeari.
c) Istingor arruntarenaren antzeko kolorea duen, baina txikiagoa den eta moko motzagoa duen istingor mota bati.

**283. Istingor txikia:**

a) Hegazti taldekoia da, beti talde handietan ikusten da.
b) Soilik udaberrian eta debekualdi erdian ikus daiteke.
c) Soil-soilik hegazti negutarra edo pasekoa da, Iberiar penintsulan.

**284. Ongi bereizi behar ditugu bi istingor espezieak hegan doazela, autonomia erkidego batzuetan debekatuta baitago ondokoa ehizatzea:**

a) Istingor arrunta, txikia baino urriagoa baita.
b) Istingor txikia, arrunta baino urriagoa baita.
c) Ez dago zertan burua hautsirik, bi istingor motak berdin ugariak dira eta.

**285. Hegabera hegazti zangaluze bat da, motots goratu berezi bat daukana:**

a) Sabela eta saihetsak beltz-berdexkak ditu.
b) Kolore beltzekoa, oro har, zeinak alde handia baitu moko zuriarekin.
c) Bizkarraldea, eztarria eta txanoa beltz-berdexkak ditu, kontraste handia egiten dutena azpialde zuriarekin.

**286. Hegaberaren irudia, hegan, nahastezina da:**

a) Hego zorrotzengatik, eta hegaztiaren lur arraseko hegaldi bizkor eta sigi-sagakoagatik.
b) Hego biribilduengatik, tximeletaren antzeko hegaketa mantsoagatik eta kontraste zuri-beltzagatik.
c) Hegaketa indartsuagatik, ibilbide zuzenagatik eta taldeen kontraste zuri-beltzagatik, zeren emeak beltzak baitira, eta arrak, zurixkak.

**287. Hegaberak 4 arrautzako errunaldi bat egiten du urtean, eta 24-29 egunez txitatzen ditu arrautzak:**

a) Toki oihantsuetan lurrean kokatutako habia batean.
b) Larre hezeetan lurrean kokatutako habia batean.
c) Ibaiertzetako zuhaitzen adarretan kokatutako habia batean.

**288. Hegabera hegazti zangaluzea da:**

a) Oso taldekoia: normalean kolonietan hazten ditu kumeak.
b) Ez oso taldekoia; gauez migratzen du, eta bakartia da.
c) Bakartia, eta ez mesfidatia edo izutia: ongi jasaten du txakur erakuslearen jarrera.

**289. Euskadin, ugaria da hegabera, nahiz eta badiren gorabeherak urtaroen arabera:**

a) Pasean eta negupasan, irailetik martxora.
b) Debekualdi erdian, non postu finkotik ehizatzen baita.
c) Ugaltzaile gisa, ia ez baita ageri neguan.

**Eperra, galeperra eta faisaia**

**290. Eper gorria hego eta isats motzeko hegazti trinko bat da:**

a) Beltza du mokoa, eta gorriak ditu hankak.
b) Arreak ditu mokoa eta hankak, eta berdin bizkarra eta hegoak.
c) Gorriak ditu mokoa eta hankak.

**291. Eper gorriaren hegaldia nahastezina da:**

a) Bizkorra eta indartsua, hegaketak eta planeatzeak aldizkatzen direla.
b) Dena hegaketa, bizkorra eta indartsua: eperrek ez dute planeatzen.
c) Bizkorra eta sigi-sagakoa: horregatik da zail hura botatzen.

**292. Eperraren defentsa:**

a) Bai hegal egiten, bai oinez mulu batetik hurrengora.
b) Hegaldi txikiak eginez mulu batetik hurrengora.
c) Lurraren kontra zapaltzen duela bere burua, usaina ezkutatzeko, txakurrei zailagoa baitzaie orduan hura topatzea.

**293. Ehiza-garaian, eper gorriaren adina jakiteko, haren hegoetako bi lumarik kanpokoenen muturrak aztertzen dira:**

a) Krema-koloreko muturrak, gaztearengan; gainera, ezproia badu, emea izango da.
b) Krema-kolorekoak eta zorrotzak, gaztearengan; biribilduak eta krema-kolorerik gabeak, helduarengan.
c) Krema-kolorekoak eta zorrotzak, helduarengan; biribilduak eta krema-kolorerik gabeak, gaztearengan.

**294. Eper gorri baten sexua jakiteko, lehenik haren adinari begiratu behar zaio, eta, gero, haren hankei:**

a) Emeek sekula ez dute ezproirik.
b) Eme gazteek ez dute ezproirik.
c) Ezproidun helduak arrak dira beti.

**295. Eper gorriaren dieta:**

a) Begetariano (belarrak eta aleak) hutsa da.
b) Nagusiki animaliaz osatua da, nahiz eta landare-osagaia funtsezkoa den txiten garapenerako.
c) Nagusiki landarezkoa da, nahiz eta animalia-osagaia funtsezkoa den txiten garapenerako.

**296. Eper gorria lur irekietako hegazti bat da, toki lauetakoa nahiz menditsuetakoa:**

a) Nekazaritza intentsiboko eta muga gutxiko eremuak ditu gustukoen.
b) Kumeak hazteko, intsektizidak eta pestizidak erabiltzen diren soroak ditu gustukoen, haietan ez baita parasitorik, eta ez da hurbiltzen landaretza naturala duten mugetara.
c) Eta lursail-kontzentraziorik gabeko guneak ditu gustukoen, muga ugari dauzkatenak, funtsezkoak baitira txitak hazteko.

**297. Leku batzuetan, apeuaren bidez uzten da eper gorria ehizatzen, araldian:**

a) Araldia otsail-martxoan izaten da.
b) Araldia irail-urrian izaten da.
c) Araldia debekualdi erdian izaten da: horregatik ezin da ehizatu espeziea urrira arte.

**298. Eper gorriak belar artean egiten du habia, edo mulu baten babesean:**

a) Emeak bi errunaldi egin ditzake aldi berean habia desberdinetan, eta arrak txitatzen ditu arrautzak haietako batean.
b) Emeak errunaldi bakarra egiten du, eta 22-24 egunez txitatzen; arrak ez du esku hartzen kumeen hazieran.
c) Emeak bi errunaldi egin ditzake aldi berean habia hurbiletan, eta haietako bat txitatzen du egun bakoitzean, zeren arrak zaindu egiten baitu bakarrik: ez du esku hartzen hazieran.

**299. Zenbat arrautza erruten ditu eper gorriak?**

a) 3 arrautzatik 5era; 4, batez beste.
b) 7 arrautzatik 17ra; 12tik 15era, batez beste.
c) 22 arrautzatik 24ra, eta beste hainbeste egunez txitatzen ditu.

**300. Eper gorria:**

a) Ugaria da itsasoaren inguruan.
b) Iberiar penintsula ia osoan eta Balear Uharteetan bizi da.
c) Iberiar penintsulako ipar-hereneko mendiguneetan, eta Erdialdeko eta Iberiar sistemetan hazten ditu kumeak, baina ez penintsulako hegoaldean.

**301. Ondokoak dira eper gorria ehizatzeko garaiak:**

a) Urritik urtarrilera, eta azarotik urtarrilera.
b) Azarotik urtarrilera, eta urritik urtarrilera.
c) Irailetik urtarrilera, eta urritik urtarrilera

**302. Eper gorria ez bezala, eper afrikarrak lepoko bat ageri du:**

a) Zuria eta puntu beltz batzuekin.
b) Beltza eta puntu zuri batzuekin.
c) Gorrixka eta puntu zuri batzuekin.

**303. Eper afrikarra hegazti sedentarioa da:**

a) Ez da bizi Iberiar penintsulan.
b) Kanariar Uharteetan eta Iberiar penintsulako puntu batzuetan, hala nola Gibraltarren, bizi da.
c) Ez da bizi Kanariar Uharteetan.

**304. Ondoko espezieetatik, zein ez da berez Euskadikoa?**

a) Eper gorria.
b) Eper afrikarra.
c) Eper grisa.

**305. Oro har, erraz bereizten da galeper helduaren sexua, zeren:**

a) Emeek eztarri zuria baitute, aingura-itxurako orban beltz batekin; bularraldea, berriz, horail iluna eta marra zuriz betea.
b) Ar helduek eztarri zuria baitute, aingura-itxurako orban beltz batekin; bularraldea, berriz, horail iluna eta marra zuriz betea.
c) Ar helduek eztarri zuria baitute, ongi eratutako aingurarik gabe; bularraldea, berriz, horail iluna, orban arre eta beltzaxka ugariz beteta.

**306. Galeper arrak:**

a) Monogamoak dira; eme berarekin batzen dira urtero, eta txandaka aritzen dira harekin, txitatze-lanetan.
b) Bigamoak dira; bi emerekin batzen dira urtero, eta txitatze-lanak partekatzen dituzte haiekin.
c) Poligamoak dira; eme ugarirekin batzen dira, eta ez dute parte hartzen kumeen hazieran.

**307. Galeperra hegazti migratzailea da. Noiz dago Euskadin?**

a) Urte osoan, antzeko kopuruetan.
b) Uda-garaian, apiril-maiatzetik irail-urrira arte.
c) Negu-garaian, irail-urritik apiril-maiatzera arte.

**308. Zenbatekoa da galeperraren errunaldia?**

a) 4 arrautzatik 6ra.
b) 7 arrautzatik 12ra.
c) 13 arrautzatik 18ra.

**309. Galeper-txitak hegan egiteko gai dira 20 egunekin:**

a) Ordura arte, habian egoten dira: nidikolak dira.
b) Txakurrak altxatzen duenean bakarrik egiten du hegan galeperrak.
c) Baina lehen egunetik dakite oinez ibiltzen: nidifugoak dira.

**310. Galeperra:**

a) Hegazti taldekoia da: bikote ugariz osatutako kolonietan hazten ditu kumeak.
b) Hegazti bakartia da: araldian edo migrazio-bidaian bakarrik elkartzen da beste batzuekin.
c) Hegazti taldekoia da; familia askotako taldetan biltzen da, eta udazkenean eta neguan ehizatzen dira taldeok.

**311. Kumeak hazteko, toki hauek maite ditu galeperrak:**

a) Gune hezeak eta urak hartzen dituenak.
b) Baso ez oso itxiak.
c) Lur freskoz eta belardiz betetako eremu irekiak.

**312. Galeperra, Iberiar penintsulan:**

a) Hegazti sedentario gisa portatzen da; ugariagoa da udazken-neguetan, kumeak hazi direnean.
b) Ugaria da negutar gisa, eta urria, habiagile moduan.
c) Habiagile arrunta da, eta urria, negutar gisa.

**313. Noiz ehizatzen da galeperra?**

a) Uda-amaieran, kumeen hazieraren ondoren eta eztei-ondoko pasearekin batera.
b) Negu-amaieran, haziera hasi aurretik eta eztei-aurreko pasearekin batera.
c) Udaberrian, haziera hasi aurretik eta Afrikako aleen etorrerarekin batera.

**314. Galeperra debekualdi erdian ehizatzen da; zergatik?**

a) Udazkeneko ehizaldi ireki orokorra heltzerako, ia guztiak joan baitira migrazioan hegoaldera, Afrikara.
b) Udazkeneko ehizaldi ireki orokorra heltzerako, ia guztiak joan baitira migrazioan iparraldera, Erdialdeko Europara.
c) Uztetan eragiten dituen kalteak saihesteko; udako ehiza horri galeperren deuseztatzea ere deitzen zaio.

**315. Faisaia tamaina handiko galinazeo bat da. Isats luzea nabarmentzen da harengan, eta:**

a) Arrak bakarrik dauka.
b) Emeak bakarrik dauka.
c) Bai arrak, bai emeak, biek daukate.

**316. Faisai arrak:**

a) Monogamoak dira; eme berarekin batzen dira urtero, eta txandaka aritzen dira harekin, txitatze-lanetan.
b) Bigamoak dira; bi emerekin batzen dira urtero, eta txitatze-lanak partekatzen dituzte haiekin.
c) Poligamoak dira; eme ugarirekin batzen dira, eta ez dute parte hartzen kumeen hazieran.

**317. Faisai emeak 23-37 egunez txitatzen ditu arrautzak. Zenbat erruten ditu errunaldi bakoitzean?**

a) 3 arrautzatik 5era.
b) 7 arrautzatik 15era.
c) 18-23 arrautza.

**318. Faisaiak:**

a) Britainiar Uharteetan du jatorria.
b) Hego Amerikan du jatorria.
c) Asia Hego-mendebaldean (Turkia) du jatorria.

**319. Nondik datoz, batik bat, Euskadin ehizatzen diren faisaiak?**

a) Basa-faisaien hazkuntzak urtero duen ugaltze-arrakastatik.
b) Ehiza-helburuekin haztegietatik askatzen diren animalietatik.
c) Udazkeneko migrazioan edo “pasean” postu finkotik ehizatzen diren Erdialdeko Europako aleetatik.

**Usoak eta usapalak**

**320. Pagausoa uso sendoa da. Lumaje gris-urdinxka du, eta hegoan:**

a) Orban beltz nabarmen batzuk ditu.
b) Orban berde nabarmen batzuk ditu.
c) Orban zuri nabarmen batzuk ditu.

**321. Udazkenean eta neguan, pagausoak:**

a) Zizareak jaten ditu, batez ere.
b) Ezkurrak eta pagatxak jaten ditu, batez ere.
c) Ez da elikatzen, ez artadietan, ez pagadietan.

**322. Pagausoak:**

a) Normalean, errunaldi bakar bat egiten du urtean.
b) Normalean, errunaldi bat egiten du urtean; oso gutxitan egiten ditu 2.
c) Normalean, 2 errunaldi egiten ditu urtean; inoiz, 3 ere bai.

**323. Pagausoak 17 egunez txitatzen du errunaldia. Zenbatetako izaten da hura?**

a) 2 arrautzakoa.
b) 4 arrautzakoa.
c) 6 arrautzakoa.

**324. Pagausoa:**

a) Hegazti bakartia da, kumeak hazteko bakarrik elkartzen baita beste batzuekin.
b) Hegazti taldekoia da, talde handiak eratzen baititu migrazio-garaian eta negupasan.
c) Hegazti taldekoia da migrazioan, eta bakartia, negua igarotzeko lekuetara heltzen denean.

**325. Euskadin, pagausoa oso hegazti arrunta da pase-garaian:**

a) Ez da bikote habiagilerik.
b) Mendi batean bakarrik hazten ditu kumeak, Euskadin.
c) Habiagile gisa, urria da ipar-isurialdean, eta ugaria, hegoaldekoan.

**326. Noiz izaten dira pagausoaren “pasea” eta “kontrapasa”?**

a) “Pasea” martxoan, eta “kontrapasa”, urrian.
b) “Pasea” apirila eta maiatza bitartean, eta “kontrapasa”, irailean.
c) “Pasea” iraila eta azaroa bitartean, eta “kontrapasa”, martxoan.

**327. Noiz izaten da pagauso-ehiza, espezie horrek eztei-ondoko migrazioa edo "pasea” egiten duenean?**

a) Otsaila eta martxoa bitartean.
b) Iraila eta azaroa bitartean.
c) Abendua eta otsaila bitartean.

**328. Noiz izaten da pagauso-ehiza, espezie horrek eztei-aurreko migrazioa edo "kontrapasa" egiten duenean?**

a) Urtarrila eta otsaila bitartean.
b) Otsaila eta martxoa bitartean.
c) Ezin da ehizatu "kontrapasan".

**329. Euskadi osoan, noiz ehiza daiteke pagausoa?**

a) Garai batean: "pasean".
b) Bi garaitan: "pasean" eta "kontrapasan".
c) Hiru garaitan: "debekualdi erdian", "ehizaldi ireki orokorrean" eta "pasean".

**330. Hegaztien Direktibak debekatzen du hegazti migratzaileen ehiza, ugaltokietara itzultzen ari direnean (kontrapasan):**

a) Baina onartzen du ohiko lekuetan ehizatzea, hala nola EAEn.
b) Baina EAEn eta Nafarroan onartzen du haiek ehizatzea.
c) Ez da inongo salbuespenik debeku horretan.

**331. Txolomak lumaje grisaxka du:**

a) Eta, pagausoak bezala, bi hegal-zerrenda beltz ditu.
b) Eta, pagausoak bezala, bi hegal-zerrenda zuri ditu.
c) Baina ez du ageri inongo seinale zuririk, eta horrexek bereizten du pagausotik.

**332. Habia egiteko, honako toki hauek bilatzen ditu txolomak:**

a) Makaldietako adarrik goienak.
b) Zuhaitz-enborretako hutsuneak, harkaiztiak, eta eraikin hutsak edo hondatuak.
c) Belardi hezeak, hura baita habia lurrean egiten duen uso bakarra.

**333. Txolomak:**

a) Normalean, errunaldi bakar bat egiten du urtean.
b) Normalean, errunaldi bat egiten du urtean; oso gutxitan egiten ditu 2.
c) 2 edo 3 errunaldi egiten ditu urtean.

**334. Txolomak 16-18 egunez txitatzen du errunaldia. Zenbatekoa izaten da hura?**

a) 2 arrautzakoa.
b) 4 arrautzakoa.
c) 6 arrautzakoa.

**335. Euskadin, txoloma ugariagoa da migrazio-paseetan:**

a) Populazio habiagilea urria eta sedentarioa da.
b) Habiagile gisa, ugariagoa da itsasertzean.
c) Iberiar penintsulako populazio habiagileak egiten du migraziorik luzeena.

**336. Haitz-usoa txolomaren tamainakoa da, eta:**

a) Hegal-zerrenda beltzak ez dituelako bereizten da harengandik.
b) Hegoetan dituen bi zerrenda beltzek bereizten dute harengandik.
c) Erraz bereiz daiteke harengandik, txolomak bi zerrenda zuri baititu hegoetan.

**337. Zein da etxe-usoaren jatorria?**

a) Haitz-usoa.
b) Pagausoa.
c) Txoloma

**338. Basatia denean, zenbat errunaldi egiten ditu urtean haitz-usoak?**

a) Normalean, bakarra.
b) Normalean, 1; oso gutxitan 2.
c) 2 edo 3.

**339. Basatia denean, haitz-usoak 17-19 egunez txitatzen du errunaldia. Zenbatekoa izaten da hura?**

a) 2 arrautzakoa.
b) 4 arrautzakoa.
c) 6 arrautzakoa.

**340. Haitz-usoa ia ez da pausatzen zuhaitzetan:**

a) Lurrean egiten du habia.
b) Hutsuneetan, haitzuloetan eta pitzaduretan egiten du habia.
c) Makaldietako adarrik goienetan egiten du habia.

**341. Usapal arrunta tonu arreak dituen uso txikia da:**

a) Helduek marra zuriz eta beltzez osatutako orban bat dute lepoan.
b) Gazteek marra zuriz eta beltzez osatutako orban bat dute lepoan.
c) Arrek marra zuriz eta beltzez osatutako orban bat dute lepoan, eta horrexek bereizten ditu emeengandik.

**342. Usapal arruntak haziak eta animaliatxo batzuk jaten ditu:**

a) Lurrean.
b) Airean.
c) Baina adarretatik, beti.

**343. Noiz da usapal arruntaren ugaltze-garaia?**

a) Apiril-erdialdea eta maiatz-amaiera bitartean.
b) Maiatz-erdialdea eta irail-amaiera bitartean.
c) Maiatz-erdialdea eta abuztu-amaiera bitartean.

**344. Usapal arruntak:**

a) Normalean, errunaldi bat egiten du urtean; oso gutxitan egiten ditu 2.
b) 2 errunaldi egiten ditu urtean.
c) 2 edo 3 errunaldi egiten ditu urtean.

**345. Zenbat arrautza erruten du, normalean, usapal arruntak?**

a) 2 arrautza.
b) 4 arrautza.
c) 6 arrautza.

**346. Usapal arrunta:**

a) Hegazti sedentarioa da, eta kumeak hazten dituen toki berean ematen du negua.
b) Sahara zeharkatzen duen migratzailea da, Sahararen hegoaldean baitu negu-tokia.
c) Sahara zeharkatzen ez duen migratzailea da, Iberiar penintsularen hegoaldean baitu negu-tokia.

**347. Noiz heltzen dira usapal arruntak Euskadira?**

a) Otsaila eta martxoa bitartean.
b) Ekaina eta uztaila bitartean.
c) Apirila eta maiatza bitartean.

**348. Noiz izaten da usapal arruntak negu-tokirantz egiten duen eztei-ondoko bidaia edo pasea?**

a) Uztail-amaiera eta abuztu-hasiera bitartean.
b) Abuztu-amaiera eta urri-hasiera bitartean.
c) Urri-amaiera eta azaro-hasiera bitartean.

**349. Usapal arruntak:**

a) Ez du hazten kumerik Euskadin.
b) Iberiar penintsula osoan eta Balear Uharteetan egiten du habia.
c) Euskadin aurkitzen du kumeak hazteko gune nagusia, Iberiar penintsulan.

**350. Noiz ehizatzen da usapal arrunta?**

a) Pasean, postu finkotik.
b) Debekualdi erdian.
c) Udazken-neguetako ehizaldi ireki orokorrean.

**Birigarroak**

**351. Birigarro arrunta txori ertaina da; gutxi gorabehera ondokoa neurtzen du:**

a) 21-23 cm.
b) 27-31 cm.
c) 37-43 cm.

**352. Birigarro arruntak bi edo hiru errunaldi egiten ditu urtean, eta bakoitzean:**

a) Arrautza bat edo 2 erruten ditu.
b) 3 arrautzatik 6ra erruten ditu.
c) 7 arrautzatik 14ra erruten ditu.

**353. "Ingude" bat aurkitu dugu, hots, barraskilo-maskor zatiak dauden harri bat. Hegazti batek hautsi ditu maskorrak, edukia jateko:**

a) Birigarroa izan da.
b) Eper gorria edo eper grisa izan da.
c) Oilagorra edo istingorra izan da.

**354. Lau birigarro motetatik, zeinek egiten dute habia Euskadin?**

a) Durdulak eta birigarro txikiak.
b) Birigarro arruntak eta garraztarroak.
c) Birigarro arruntak eta birigarro txikiak.

**355. Zein da Iberiar penintsulan eta Balear Uharteetan ale gehien ehizatzen den espeziea?**

a) Basurdea.
b) Basahatea.
c) Birigarro arrunta.

**356. Ehiza daitezkeen zenbat birigarro mota dira Euskadin?**

a) Espezie bakarra.
b) 2 espezie desberdin.
c) 4 espezie desberdin.

**357. Birigarro arruntarengan eta birigarro txikiarengan ez bezala, zer koloretakoa da garraztarroaren hegoaren behealdea?**

a) Gorria.
b) Zuria.
c) Marroia.

**358. Garraztarroak:**

a) Iberiar penintsula osoan hazten ditu kumeak.
b) Kumeak Euskadin hazten ez dituen birigarro bakarra da.
c) Euskadin aurkitzen du kumeak hazteko gune nagusia, Iberiar penintsulan.

**359. Garraztarroak:**

a) Urtean bitan erruten du.
b) Urtean lautan erruten du.
c) Urtean seitan erruten du.

**360. Nola ehiza daiteke garraztarroa?**

a) Postu finko batetik soilik.
b) Ehizaldi ireki orokorrean eta “pasean”, postu finko batetik.
c) Postu finko batetik bakarrik, irailetik azarorako “pasean”.

**361. Durdularen hegoaren behealdea:**

a) Gorria da.
b) Zuria da.
c) Marroia da.

**362. Jokaerari dagokionez, nolakoa da durdula?**

a) Bakartia.
b) Sedentarioa.
c) Oso taldekoia.

**363. Durdula, Iberiar penintsulan:**

a) Pasekoa eta negutarra da.
b) Urte osoan ikusten da.
c) Debekualdi erdian ikusten da.

**364. Birigarro txiki helduak:**

a) 30 cm inguru ditu.
b) 21 cm inguru ditu.
c) 18 cm inguru ditu.

**365. Iberiar penintsulako hegoaldean, birigarro txikiak:**

a) Ezkur asko jaten du.
b) Oliba asko jaten du.
c) Ekilore-hazi asko jaten du.

**366. Euskadin, birigarro txikia:**

a) Hegazti egoiliarra da, eta ohikoa, urte osoan.
b) Hegazti arrunta da pase-garaian, eta ohikoa, ugaltzaile gisa.
c) Hegazti arrunta da pase-garaian, eta ohikoa, negutar gisa.

## Ehiza korbidoak eta arabazozoak

**367. Mika korbido nahastezina da, dituen isats luzeagatik eta koloreengatik:**

a) Zuria eta beltza.
b) Guztiz beltza.
c) Beltza, baina burua grisa edo errauts kolorekoa.

**368. Dietari dagokionez, mika:**

a) Haragijale hutsa da; soilik sarraskia eta animaliak jaten ditu.
b) Begetariano hutsa da; soilik landareak eta landare-jatorriko giza hondakinak jaten ditu.
c) Ia-ia omniboroa da; animaliak, sarraskia, landareak eta giza hondakinak jaten ditu.

**369. Mikak habia handi eta zarbatsu bat egiten du zuhaitzetan, eta, han:**

a) Urtean behin erruten du.
b) 2 errunalditik 3ra ditu urtean.
c) 3 errunalditik 5era ditu urtean.

**370. Zenbat arrautza erruten ditu mikak errunaldi bakoitzean?**

a) 2 arrautzatik 3ra.
b) 5 arrautzatik 8ra.
c) 10 arrautzatik 18ra.

**371. Neguan, erraz ikus daitezke mika taldeak:**

a) Hegazti sedentarioa da, eta taldetan biltzen da negua igarotzeko.
b) Euskadin ez da mikarik neguan; hegazti migratzailea da.
c) Ipar Europatik migrazioa egiteko elkartzen den hegaztia da.

**372. Zer da bele txikia?**

a) Belearen kumea.
b) Korbido espezie bat; beltza, oro har, baina garondo grisekoa.
c) Korbido espezie bat, koloreak zuria eta beltza dituena.

**373. Non egiten du habia bele txikiak?**

a) Lurrean.
b) Makaldietako adarrik goienetan.
c) Zuhaitz-enborretako hutsuneetan, eraikinetan, harkaiztietan...

**374. Ondoko espezieetatik, zein ehiza daiteke Euskadin?**

a) Erroia.
b) Bele txikia.
c) Erroia eta belea.

**375. Belea tamaina ertaineko (43-47 cm) korbidoa da, lumaje beltzekoa:**

a) Erroia baino handiagoa da.
b) Mika baino txikiagoa da.
c) Belea da ehiza daitekeen korbidorik handiena.

**376. Ehiza daitezkeen korbidoak dira:**

a) Bi: belea eta erroia.
b) Bi: mika eta belea.
c) Guztiak.

**377. Zenbatetan erruten dubeleak?**

a) Urtean behin: 4 arrautzatik 6ra.
b) Urtean 2tan edo 3tan: 4 arrautzatik 6ra, aldiko.
c) Urtean 4tan: 4 arrautzatik 6ra, aldiko.

**378. Zenbat arrautza erruten ditu beleak, errunaldi bakoitzean?**

a) Arrautza batetik 2ra.
b) 4 arrautzatik 6ra.
c) 12 arrautzatik 18ra.

**379. Beleak Iberiar penintsula osoan hazten ditu kumeak:**

a) Hegazti sedentarioa da.
b) Hegazti migratzailea da; hemen hazten ditu kumeak, baina hegoaldera joaten da negua igarotzera.
c) Hegazti migratzailea da; neguan, Iberiar penintsulako populazioak Erdialdeko Europako bele migratzaile kopuru handi bat jasotzen du.

**380. Arabazozo pikartak tamaina ertaineko hegaztiak dira:**

a) Beltza dute lumajea, eta tanto gorrixkak dituzte sabelean.
b) Tantoz josirik dute lumajea: gorrixkak, bizkarrean, eta zuriak, sabelean.
c) Tantoz josirik dute lumajea: zuriak, bizkarrean, eta gorrixkak, sabelean.

**381. Badira oso antzeko bi arabazozo espezie, baina haietako bat ez da ehiza-espezie egun:**

a) Arabazozo beltza.
b) Arabazozo txanoduna.
c) Arabazozo espezie bakarra da: kanpandorreko zozoa deritzana.

**382. Zer da arabazozo pikarta?**

a) Arabazozo beltzaren kumea.
b) Arabazozo beltz emea.
c) Bi arabazozo motetatik Euskadin ehiza daitekeen bakarra.

**383. Nolakoa da, Euskadin, arabazozo pikartaren populazioa?**

a) Soilik negutarra.
b) Soilik sedentarioa.
c) Sedentarioa, nahiz eta Erdialdeko Europako eta Baltikoaren inguruko ale negutarrak ere etortzen diren.

**384. Non hazten ditu kumeak arabazozo pikartak?**

a) Bizkaiko Golkoaren kostaldeko ekialdean, Pirinioetan eta Katalunian.
b) Iberiar penintsula osoan, nahiz eta bakanagoa den iparraldean.
c) Euskadin bakarrik aurkitzen du ugaltzeko tokia, Iberiar penintsulan.

**Erbiak eta untxia**

**385. Zenbat erbi espezie bizi da Iberiar penintsulan?**

a) Espezie bakar bat.
b) 2 espezie.
c) 3 espezie.

**386. Euskadin, bi erbi espezie dira:**

a) Erbi europarra eta erbi iberiarra.
b) Piornaleko erbia eta erbi iberiarra.
c) Erbi europarra eta piornaleko erbia.

**387. Dietari dagokionez, zer da erbia?**

a) Karniboroa.
b) Belarjalea.
c) Sarraskia bakarrik jaten du.

**388. Erbiaren araldia otsailetik azarora izaten da, eta 42-44 eguneko umedunaldiaren ondoren jaiotzen dira erbikumeak:**

a) Udaberrian bakarrik izaten dira umedun emeak.
b) Ehizaldi ireki orokorrean, ezin da ernari den erbirik ehizatu.
c) Ehizaldi ireki orokorrean, baliteke eme batzuk ernari izatea.

**389. Normalean, erbiek erbikume batetik 3ra egiten dituzte, eta:**

a) Umealdi bakarra izaten dute urtean.
b) Bi umealdi izaten dituzte urtean.
c) 3 umealditik 4ra izaten dituzte urtean.

**390. Erbiek 3 umealditik 4ra izaten dituzte urtean, eta bakoitzean:**

a) Erbikume bana.
b) Erbikume batetik 3ra.
c) 5 erbikume.

**391. Erbia gune irekietan bizi da, hala nola zelaietan, larreetan eta soroetan:**

a) Bai eta sastrakadi eta baso bakanduetan ere.
b) Horregatik ez dugu aurkituko erbirik mendiguneetan.
c) Sekula ez dugu aurkituko erbirik sastrakadi eta baso bakanduetan.

**392. Erbi espezieek oso bizileku desberdinak dituzte Iberiar penintsulan.**

a) Erbi europarra Euskadin bakarrik bizi da.
b) Erbi europarra penintsulako ipar-herenean bizi da.
c) Erbi europarra ia penintsula osoan bizi da, kantauriar isurialdean izan ezik.

**393. Non bizi da erbi iberiarra Euskal Autonomia Erkidegoan?**

a) Arabako hegoaldean.
b) Bizkaian eta Gipuzkoan.
c) Erkidego osoan, kostaldetik Ebroraino.

**394. Nola ehizatzen da erbia Euskadin?**

a) Erbi-txakurrekin.
b) Arrasto-txakurrekin.
c) Txakur erakusleekin, debekualdi erdian.

**395. Untxia tamaina ertaineko ugaztuna da. Belarri luzeak eta buztan motza ditu, eta:**

a) 1 eta 1,5 kg bitarteko pisua du.
b) 2 eta 2,5 kg bitarteko pisua du.
c) 3 eta 3,5 kg bitarteko pisua du.

**396. Untxien eta erbien kubituan (besaurreko hezur luzea) koskor txiki bat igartzen badiegu…**

a) Helduak dira.
b) Gazteak dira.
c) Ar helduak dira.

**397. Untxia ugaltzaile oportunista da; landare berdeen hazierak eragiten du araldian:**

a) Horregatik, udan izaten da untxiaren araldia.
b) Horregatik, ekainetik urrira izaten da untxiaren araldia.
c) Horregatik, urritik ekainera izaten da untxiaren araldia.

**398. Untxia oso espezie ugalkorra da; umealdi bakoitzean:**

a) 1 eta 3 untxikume bitartean jaiotzen dira.
b) 3 eta 9 untxikume bitartean jaiotzen dira.
c) 10 eta 12 untxikume bitartean jaiotzen dira.

**399. Untxiaren umealdia 3 eta 9 kume bitartekoa izaten da, eta eme batek honako kume hauek egin ditzake:**

a) 3 eta 9 bitartean, urteko: umealdi bakarra du urtean.
b) 10 eta 16 bitartean, urteko.
c) 20 eta 32 bitartean, urteko.

**400. Baldin eta oso animalia taldekoi batez ari bagara, zeina lurreko zulo baten inguruan eratutako kolonietan bizi den, honako honetaz ari gara:**

a) Untxiaz.
b) Erbiaz.
c) Untxiaz eta erbiaz.

**401. Untxia harrapakin garrantzitsu bat da fauna iberiarreko 40 espezie baino gehiagorentzat; ia Iberiar penintsula osoan bizi da:**

a) Euskadin izan ezik.
b) Balearretan eta Kanarietan izan ezik.
c) Bizkaiko Golkoaren kostaldeko zati handi batean izan ezik.

**402. Euskadin, untxia:**

a) Araban soilik bizi da.
b) Oso ugaria da iparraldeko erdian, eta falta da Araban.
c) Oso ugaria da Araban, eta falta da kostaldeko zatirik handienean.

**403. Mixomatosiak eta pneumonia hemorragiko birikoak sarraski handia egin dute:**

a) Untxien artean.
b) Eper grisen artean.
c) Erbi europarren artean.

**404. Untxiak kalte handiak egiten dituenean, leku batzuetan ehizaldi baimenduak egiten dituzte:**

a) Lika erabilita.
b) Hudoak erabilita.
c) Zulo-txakurrak erabilita.

**Azeria eta otsoa**

**405. Zer da azeria?**

a) Tamaina ertaineko kanidoa, punta zurixkako isats luzea duena.
b) Tamaina ertaineko zerbidoa, punta gorrixkako isats luzea duena.
c) Tamaina ertaineko lagomorfoa, punta zuri-beltzeko isats luzea duena.

**406. Azeriaren dieta oso aldakorra da; bizilekuaren eta urtaroaren araberakoa, beti.**

a) Landarejalea da; soilik aleak, belarrak, fruituak, ezkurrak… jaten ditu.
b) Omniboroa da; animaliak jaten ditu, baina baita fruituak, zaborrak, sarraskia… ere.
c) Karniboroa da; soilik untxikumeak, erbikumeak, orkatz-kumeak, eperkumeak… jaten ditu.

**407. Azeriek ia-ia araldian bakarrik egiten dute "zaunka". Noiz izaten da hura?**

a) Udaberrian.
b) Udan.
c) Neguan.

**408. Azeriak:**

a) Umealdi bakarra du urtean.
b) Bi umealdi ditu urtean.
c) Hiru umealdi ditu urtean.

**409. Zenbat kume egiten ditu azeriak umealdi bakoitzean?**

a) 2.
b) 3 eta 6 bitartean.
c) 8 eta 12 bitartean.

**410. Azeriaren ugalketari buruz:**

a) Kumeak lurpean jaiotzen dira, zuloen barnean.
b) Normalean, aire zabalean hazten ditu kumeak, eta bitxia da kumeak lurpeko zuloetan jaiotzea.
c) Azeriak sekula ez du erabiltzen zulorik ugalketa-garaian.

**411. Nolako animaliak dira azeriak?**

a) Bakartiak; araldian bakarrik elkartzen dira.
b) Taldekoiak; zulo berean eta bikote ugariz osatutako kolonietan hazten dituzte kumeak.
c) Lurraldekoiak; bikoteka edo talde txikitan bizi dira, ar baten menpean.

**412. Azeria:**

a) Iberiar penintsula osoan bizi da.
b) Iberiar penintsula osoan bizi da, baina itsasertzetan ez.
c) Iberiar penintsula osoan bizi da, baina mendiguneetan ez.

**413. Normalean, noiz eta nola ehiza daiteke azeria?**

a) Ehizaldi ireki orokorrean bakarrik, urritik otsailera.
b) "Zulo-txakurrekin" bakarrik, urritik otsailera.
c) Lurralde historiko bakoitzeko urteko Ehizaldien Aginduak ezartzen duenaren arabera.

**414. Zer da azeria?**

a) Ehiza xeheko ehizakirik handiena.
b) Ehiza larriko ehizakirik txikiena.
c) Iledun ehiza xeheko ehizakirik txikiena.

**415. Otso iberiarra zakur handi baten tamainako kanidoa da:**

a) Gutxitan izaten da 20 kg-tik gorakoa.
b) Gutxitan izaten da 35 kg-tik gorakoa.
c) Ar handiak, maiz, 50 kg-tik gorakoak izaten dira.

**416. Otsoa karniboroa da nabarmenki:**

a) Ehizatzen dituen animaliak bakarrik jaten ditu.
b) Ehizatzen duen azienda bakarrik jaten du, batez ere ardiak.
c) Baina dieta erraz aldatzen dakiena, garaiaren eta eskualdearen arabera; fruituak eta sarraskia ere jaten ditu.

**417. Otsoa goi mailako harraparia da; otsoak diren lekuan, segur aski:**

a) Txakur basati gutxiago izango da, eta azeri gehiago, zeren otsoak ez baitu azeririk ehizatzen.
b) Azeri gehiago izango da; neguan, maiz ikusten dira otsoz eta azeriz osatutako talde mistoak.
c) Txakur eta katu basatu gutxiago izango da, eta azeri, lepazuri, azkonar… gutxiago.

**418. Noiz izaten da otsoaren araldia?**

a) Neguan.
b) Udaberrian.
c) Udan.

**419. Kumeak hazteko, non babesten dira otsoak?**

a) Zuloetan edo leizeetan; lurpean hazten dituzte kumeak beti.
b) Leizeetan, nagusiki; baina baita sasi trinkoko lekuetan ere.
c) Sasi trinkoko lekuetan; ez dute zulorik egiten, azeriak edo untxiak bezala.

**420. Zenbat kume egiten ditu otsoak umealdi bakoitzean?**

a) 2 eta 3 bitartean.
b) 4 eta 9 bitartean.
c) 8tik gora, beti.

**421. Nolako espeziea da otsoa, bizilekuari dagokionez?**

a) Menditarra: mendiguneetako basoetan bakarrik aurki daiteke.
b) Oportunista: ingurune mota guztiak okupatzen ditu, gizatiartuak (soro-lurrak, zabortegiak…) izan ezik.
c) Orotarikoa: mendi-inguruneetan nahiz ingurune gizatiartuetan aurki daiteke.

**422. Esan daiteke otsoa hedatzen ari dela:**

a) Iberiar penintsulako iparraldeko erdian bizi da, eta zeharo galdu da Andaluzian.
b) Populazio-gune bakar bat gelditzen da, eta Kantabriar mendikatean dago hedatuta.
c) Iberiar penintsulako ipar-ekialdeko laurdenean bizi da, baita Andaluziako iparraldean eta ekialdeko Pirinioetan ere.

**423. Otsoa hedatzen ari da penintsula iparraldeko bere ohiko bizilekuan:**

a) Birkolonizatu ditu edo maiz agertzen da Euskadiko eskualde batzuetan.
b) Espezie ugaria da ugaltzaile gisa EAEn, eta horregatik ehiza daiteke.
c) Ez da otsoen berririk, Euskadin, orain 20 urtetik baino gehiagotik.

**424. Otsoak Euskadi birkolonizatzea:**

a) Ehizatzeko askatu diren aleei esker azal daiteke.
b) Ekologistek askatutako aleei esker azal daiteke.
c) Berezko hedapen bati esker azal daiteke, bereziki Gaztela eta Leondik.

**Basurdea eta zerbidoak**

**425. Basurdearen letaginak dira haren trofeoak:**

a) Behekoei “zorroztaginak” deitzen zaie.
b) Goikoei “zorroztaginak” deitzen zaie.
c) Goikoei “aiztoak” edo "labanak” deitzen zaie.

**426. Basurdearen adin zehatza jakiteko:**

a) Hortz-aginei erreparatu behar zaie.
b) Ileari erreparatu behar zaio.
c) Muturrari erreparatu behar zaio.

**427. Basurdekumeak?**

a) Amarekin geratzen dira hurrengo araldirarte.
b) Amarekin geratzen dira hilabete.
c) Amarekin geratzen dira bi hilabete.

**428. Zein basurde da gazteagoa, kolorea ikusita?**

a) Ile ilunekoa.
b) Gorrizta.
c) Marraduna.

**429. Dietaren arabera, esan daiteke basurdea:**

a) Belarjalea dela; ezkurrak bakarrik jaten ditu.
b) Karniboroa dela; animalia-materia soilik jaten du, nahiz eta sarraskia ere bai.
c) Omniboroa dela; landareak, animaliak, zaborra eta sarraskia jaten ditu.

**430. Zenbat umealdi izaten ditu basurdeak urtean?**

a) Bakarra.
b) Bi.
c) Hiru.

**431. Zenbatekoa da basurde-umealdi bat?**

a) 1 eta 6 kume bitartekoa.
b) 8 eta 10 kume bitartekoa.
c) 12 kume, urtean; hau da, 6na kumeko bi umealdi.

**432. Basurdea ilunabarreko edo gaueko animalia da, eta landaretza trinkoko inguruneak atsegin zaizkio:**

a) Animalia basotarra da; gutxitan ikus daiteke, sekula ez baita irteten menditik.
b) Basotarra da nagusiki, baina irteten da toki irekietara, zelaietan eta soroetan elikatzeko.
c) Basotarra da nagusiki; joaten da zelaietara, baina sekula ez du jaten haietan: zeharkatu egiten ditu, artasoroetara hurbiltzeko.

**433. Honako hauek osatzen dituzte urdaldeak:**

a) 10 urtetik gorako ar zaharrek.
b) 2 eta 5 urte bitarteko basurdeek.
c) Emeek eta urteko kumeek.

**434. Euskadin, honako hauetan bizi da basurdea:**

a) Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.
b) Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian, ez.
c) Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan, ez.

**435. Basurdea ehiza larriko espeziea da. Zaletasun handia piztu du, eta honela ehizatzen da Euskadin:**

a) Saltatzean, txakur erakusleekin.
b) Uxaldian, arrasto-txakur edo untxariekin.
c) "Monteria" modalitatean, taldetan bildutako heltze-txakurrekin.

**436. Oro har, ondokoa da basurdea ehizatzeko denboraldia Euskadin:**

a) Irailetik otsailera.
b) Urritik otsailera.
c) Urritik otsailera, nahiz eta batzuetan ehiza daitekeen epe horretatik at ere.

**437. Zer da *Cervus Elaphus*?**

a) Oreina.
b) Orkatza.
c) Adarzabala.

**438. Oreinaren adajeari buruz:**

a) Arrek bakarrik dute adajea.
b) Arrek eta eme helduek dute adajea.
c) Arrek eta emeek dute adajea, nahiz eta emearenak adarkadura gutxiago dituen.

**439. Oreinaren adajea urtero berritzen da. Noiz erortzen zaio adaje zaharra oreinari?**

a) Irailean edo urrian.
b) Uztailean edo abuztuan.
c) Martxoan edo apirilean.

**440. Oreinaren araldia irailean edo urrian izaten da, eta honela deitzen zaio:**

a) Marraska.
b) Marrualdi.
c) Adarberritze.

**441. Noiz izaten da oreinaren araldia edo marrualdia?**

a) Martxo-pirilean.
b) Uztail-abuztuan.
c) Irail-urrian.

**442. Zer adinarekin dute sexu-heldutasuna oreinek?**

a) Urtebetearekin.
b) Bi urterekin arrek, hirurekin emeek.
c) Hiru urterekin arrek, birekin emeek.

**443. Zer adinarekin agertzen zaizkie adarrak oreinari?**

a) 6 hiletik aurrera.
b) Bi urtetik aurrera.
c) Hiru urtetik aurrera.

**444. Zenbat kume egiten dituzte oreinek normalean?**

a) Bakar bat.
b) 1 eta 3 bitartean.
c) 2 eta 4 bitartean.

**445. Oreina, Iberiar penintsulan:**

a) Hegoaldean bakarrik bizi da.
b) Hedapen zabala du, baina nukleo zatitutan bizi da.
c) Hedapen zabala du hegoaldean; iparraldean, berriz, Pirinioetan eta Gorbeia mendigunean soilik bizi da.

**446. Oreina, Euskadin:**

a) Erabat galdu zen, eta berriz kolonizatu ditu bere antzinako lurraldeak, Gaztela eta Leondik berez hedatuta.
b) Sekula ez zen guztiz galdu, nahiz eta birpopulatze batzuk ere egin diren mendigune batzuetan (Ordunte eta Gorbeia).
c) XIX. mendearen hondarrean galdu zen, eta lehenik Gorbeia mendigunean birsartu zen, eta, gero, Ordunte mendizerran, Karrantza haranean.

**447. Honako hauetan ikusi dira oreinak, Euskal Autonomia Erkidegoan:**

a) Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan, ez.
b) Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian, ez.
c) Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

**448. Zerbido bat ikusi dugu: “pala” itxurako adarrak ditu, eta tanto zuriz betetako ilaje arre-gorrizta. Zer da?**

a) Adarzabal arra.
b) Orein arra.
c) Oreinkumea.

**449. Adarzabala:**

a) Zerbido espezie bat da.
b) Orein emeari deitzen zaio adarzabala.
c) Orein emeek oso gustuko duten belar mota bat da adarzabala.

**450. Adarzabalaren araldia noiz izaten da?**

a) Uztailean.
b) Irail-urrian.
c) Urri-azaroan.

**451. Zortzi hileko umedunaldiaren ondoren, zenbat kume egiten dituzte adarzabal emeek normalean?**

a) Bakar bat.
b) Bi.
c) 2 edo 3.

**452. Adarzabalaren egungo presentziaz, zein da egia ondoko baieztapenetatik?**

a) Iberiar penintsulako egungo nukleoek egindako askatzeetan dute jatorria.
b) Penintsulako iparraldean, adarzabala leku guztietan bizi da.
c) Gaztela-Leondik berez izan duen hedapenagatik azal daiteke adarzabalak Euskadin duen presentzia.

**453. Ipurdian duten orban zuri bereziagatik bereiz daiteke orkatzaren sexua:**

a) Arrek bakarrik dute zuria ipurdiko orbana.
b) Giltzurrun itxura du arrarengan, eta bihotz itxura emearengan.
c) Giltzurrun itxura du emearengan, eta bihotz itxura, arrarengan.

**454. Orkatzaren adajeari buruz:**

a) Arrek bakarrik dute adajea.
b) Bi urtetik gorako arrek bakarrik dute adajea.
c) Emearen adajea arrarena baino txikiagoa eta adarkadura gutxiagokoa da.

**455. Orkatzak adaje erorkorra dauka. Noiz erortzen zaio?**

a) Otsailean edo martxoan.
b) Uztailean edo abuztuan.
c) Urrian edo azaroan.

**456. Noiz izaten da orkatzaren araldia?**

a) Martxoan edo apirilean.
b) Uztailean edo abuztuan.
c) Irailean edo urrian.

**457. Orkatzek umealdi bakarra izaten dute urtean, eta zenbat kume, aldiko?**

a) Bakar bat.
b) Bi.
c) Hiru.

**458. Orkatzak animalia lurraldekoiak dira araldian eta erditzean; arrak, berriz:**

a) Monogamoak; eme bat bakarrik estaltzen dute, urteko.
b) Monogamoak; eme bera estaltzen dute, urtero.
c) Poligamoak; eme ugari estal ditzakete.

**459. Orkatza, Iberiar penintsulan:**

a) Soilik ipar-erdian bizi da; Galiziatik Kataluniaraino.
b) Modu orokorrean okupatzen du ipar-erdia, eta bakanagoa da hegoaldeko erdian.
c) Kantabriar mendikatean, Euskadiko mendietan eta Pirinioetan bakarrik bizi dira orkatzak.

**460. Euskadin, orkatza zeharo galduta zegoen XX. mendearen erdialdera; orain, berriz, ondokoetan bizi da:**

a) Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.
b) Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan, ez.
c) Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian, ez.

**461. Honako hau da orkatzak egun Euskadin duen presentziaren azalpena:**

a) Errioxatik berez gertatu den birkolonizazio-prozesua.
b) Ehiza-helburuekin egin diren birpopulatzeak bakarrik.
c) Kantabriatik, Burgosetik eta Nafarroatik gertatu den berezko birkolonizazioa, eta egin diren birpopulatze batzuk.

**462. Orkatz arrak ehizatzeko garaia:**

a) Lau hilekoa da: apiriletik ekain-uztailak arte.
b) Sei hilekoa da: irailetik otsaila arte.
c) Lurralde bakoitzeko urteko debekualdien aginduen arabera aldatzen da.

**Bobidoak**

**463. Sarrioaren adarrez:**

a) Bi sexuek dituzte adarrak.
b) Arrek bakarrik dituzte adarrak.
c) Bi urtetik gorako arrek bakarrik dituzte adarrak.

**464. Nolakoak dira sarrioaren adarrak?**

a) Motzak eta kakotuak, eta ez dira erortzen.
b) Luzeak eta “pala” formakoak, eta ez dira erortzen.
c) Adarkatuak, eta urtero erortzen eta berritzen direnak.

**465. Noiz izaten da sarrioaren araldia?**

a) Udan.
b) Udazken hondarrean.
c) Udaberri hondarrean.

**466. Zein du berezko bizilekua sarrioak?**

a) Goi-mendietako harkaiztiak eta larreak.
b) Gaztela eta Leongo goi-ordokiko eremuak.
c) Baso-giroak, hala nola Kantauri aldeko eta Pirinioetako artadiak eta eukalipto sailak.

**467. Sarrio ar helduak:**

a) Emeengandik aldenduta bizi dira, araldian izan ezik.
b) Emeekin bilduta bizi dira.
c) Ale batzuk emeengandik aldenduta bizi dira, eta beste batzuk srtalde ber-beretan bilduta.

**468. Basahuntza bobido sendoa da, eta adar irekiak eta apur bat kurbatuak ditu; adarrok:**

a) Arrek bakarrik dituzte.
b) Luzeagoak eta lodiagoak dira arrengan.
c) Bi urtetik gorako arrek bakarrik dituzte.

**469. Noiz izaten da basahuntzaren adar-erortzea edo adarberritzea?**

a) Neguaren hondarrean, oreinarengan bezala.
b) Udazkenaren hasieran, orkatzarengan bezala.
c) Sekula ez: basahuntzaren adarrak ez dira erorkorrak.

**470. Noiz izaten da basahuntzaren araldia?**

a) Uztailean edo abuztuan.
b) Irailean edo urrian.
c) Azaroan edo abenduan.

**471. Antzina, basahuntzak Iberiar penintsulako mendizerra eta mendi guztiak okupatzen zituen, eta lau azpiespezie ziren; egun, berriz;**

a) Azpiespezie bakar bat da, eta Kantabriar mendikatean eta Pirinioetan bizi da.
b) Bi azpiespezie dira: Erdialdeko Sistemako basahuntza, eta Andaluziako eta Ekialdeko mendietakoa.
c) Hiru azpiespezie dira: Erdialdeko Sistemako basahuntza, Andaluziako eta Ekialdeko mendietakoa, eta Pirinioetakoa, zeinari "bukardo" deitzen zaion.

**472. Zer da "bukardoa"?**

a) Gredos mendikateko basahuntz-trofeo handiei ematen zaien izena.
b) Izen hori ematen zitzaion basahuntz piriniotarrari, zeina 2000n galdu baitzen.
c) Pirinioetan harrapatzen diren basahuntz-trofeo handiei ematen zaien izena.

**473. Baldin eta mufloi bat ikusten badugu, eta "zela" badauka, hots, orban zuri bat bizkarrean eta saihetsetan:**

a) Arra da.
b) Ar gaztea da.
c) Adarrak baditu, arra da.

**474. Mufloiaren adarrez:**

a) Bi sexuek dituzte adarrak.
b) Arrek bakarrik dituzte adarrak.
c) Emearenak motzak eta meheak dira, edo ez ditu.

**475. Mufloiak Iberiar penintsulan duen presentziaz:**

a) Europar kontinentetik eta Pirinioetan zehar izan den berezko hedapen baten emaitza da.
b) Balear eta Kanariar uharteetan du jatorria, eta haietatik sartu da europar kontinentera, ehiza-helburuekin.
c) Mediterraneoko uharte batzuetan –Korsika, Sardinia eta Zipre– du jatorria, eta haietatik sartu da europar kontinentera, ehiza-helburuekin.

**476. Amotraguaren adarrez:**

a) Arrek bakarrik dituzte adarrak.
b) Luzeagoak eta kurbatuagoak dira arrengan.
c) Arrek eta eme zaharrek bakarrik dituzte adarrak.

**477. Amotragua espezie exotikoa da, eta ehiza-helburuekin sartu zuten Iberiar penintsulako hego-ekialdean:**

a) Ipar Amerikakoa da, jatorriz.
b) Saharako eskualdeko menditsu eta malkartsuetakoa da, jatorriz.
c) Mediterraneoko uharte batzuetakoa –Korsika, Sardinia eta Zipre– da, jatorriz.

**478. Nahiz eta beste toki batzuetan ere sartu duten, honako hauetan bizi da nagusiki amotragua Iberiar penintsulan:**

a) Erdialdeko eta Iberiar sistemetan.
b) Kantabriar mendikatean eta Pirinioetan.
c) Espuña mendilerroan eta Espainia hego-ekialdeko eta Murtziako beste mendialde batzuetan.

5. IDENTIFIKATZEKO ARAZOAK

**479. 216/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezarri zuen.**

a) Ehizaldi Aginduen zerrendak eta Dekretu horrnak berdin-berdinak izan behar dute.
b) Ehizaldi Agindu bakoitzaren zerrendak ugaritu ditzake ehiza daitezken espezieak urte jakin batean.
c) Debekualdiei buruzko foru-aginduetako espezie-zerrendak murriztu bai, baina ezin izango da ugaritu lurralde historikoan ehiza daitezkeen espezieen kopurua.

**480. Lagun batek esan digu korbido espezie guztiak ehiza daitezkeela, hala nola erroia, baina soilik hegazti harrapari txiki batzuk hil daitezkeela, hala nola belatza edo zapelatza:**

a) Ez du zuzen esan.
b) Ez da guztiz egia, zeren erroia udan soilik ehiza baitaiteke.
c) Egia da erroiaz dioena, baina badakigu ezin dela hegazti harraparirik ehiza.

**481. Basurde-uxaldietan, ohikoa da ihesi doan animaliari presaka tiro egitea sasitzaren erdian; ehiztariak istant bat baizik ez du izaten animalia egoki identifikatzeko, eta, beraz, ardura guztiak hartu behar dira:**

a) Egia: inoiz pertsonarik ere hil dute, iritzira edo gutxi gorabehera tiro egiteagatik.
b) Basurdea hurbiltzen entzuten dugunean, postutik mugitzea da gomendagarriena.
c) Egia esan, arazoa ez da hainbestekoa: ia ezinezkoa da motibo horregatik inor hil dadin.

**482. Oilagorra saltatzean ehizatzen dugunean, ardura guztiak hartu behar dira haren hegaldia urubiarenarekin edo eskinosoarenarekin ez nahasteko:**

a) Oilagorra bezala, estepako hegaztiak dira biak.
b) Bi espezieak baso-girokoak dira, eta hantxe babesten da oilagorra ere.
c) Basoan, zail da eskinoso batekin topo egiten, zona hezeetan bizi baita.

**483. Istingorrak hegazti zangaluzeak dira, kolore arrekoak eta moko luzekoak:**

a) Oilagorra baino txikiagoak.
b) Oilagorra baino handiagoak.
c) Egia esan, oilagorraren kumeak dira.

**484. Basoan gabiltzala, zerbido txiki bat ikusi dugu ezustean, eta ipurdiko orbana zuria zuen. Zer izan daiteke?**

a) Adarzabala.
b) Orkatza.
c) Orein emea.

**485. Zertan bereizten dira oreina eta orkatza?**

a) Ezinezkoa da biak nahastea, haien bizilekuak ez baitatoz bat, eta sekula ez baitira biak ingurune berean agertzen.
b) Orkatza txikiagoa da, zuria du ipurdiko orbana, eta arrek hiru puntako adaje motza dute.
c) Orkatza txikiagoa da, tanto zuriz betea du larrua, eta adar zuzen eta kakotuak dituzte bi sexuek.

**486. Zer hausnarkari espezierengan dituzte adarrak soilik emeek?**

a) Sarrioarengan.
b) Mufloiarengan.
c) Ezein espezierengan ez.

**487. Uso-ehizalekuetatik hurbil-hurbildik ikus daitezke espezi ugaritako milaka hegazti; espezie-ugaritasun hori dela eta, ehiztariak:**

a) Espezieak identifikatzeko ezagutza handia izan behar du, ehizatzekoak ez diren aleak ez botatzeko.
b) Ehiza-azterketa gainditu izanaren agiria eraman behar du beti; hala, ehiza ez daitekeen espezieren bat botatzen badu, huts bat izan dela froga diezaieke agintariei.
c) Tiro gehiago egin behar du, eta horrek babestutako animaliak botatzeko arriskua dakar berekin; onartuta dauka hori foru-araudiak, baldin eta ehiza ez daitezkeen 5 ale baino gehiago botatzen ez badira eguneko.

**488. Pagausoa udazkeneko "pasean" eta postu finkotik ehizatzen da, eta, horri esker, beste ehiza modalitate batzuetan nekez ikusten diren espezie batzuk beha daitezke tiro barruan; baina pagausoaren ehiza modalitate hori ehizaldi ireki orokorraren aurretik hasten da, eta, beraz:**

a) “Pase" osoan ehiza ditzakegu tiro barruan igarotzen diren ahateak.
b) Postu finkotik, bai usoei, bai birigarroei eta oilagorrei egin diezaiekegu tiro.
c) Behin ehizaldi ireki orokorra hasitakoan eta arauek onartzen badute bakarrik ehiza ditzakegu tiro barruan igarotzen diren ahateak.

**489. Paseko uso talde bat ikusi dugu azaroan, eta handiago batzuk beste txikiago batzuekin nahasita doaz:**

a) Pagauso arrak eta emeak dira.
b) Pagausoak eta haitz-usoak dira.
c) Pagausoak eta txolomak dira.

**490. Erraz bereizten dira paseko hegazti espezieak, hegan osatzen dituzten irudiengatik:**

a) Antzarek “V” osatzen dute hegan, ubarroiek eta kurriloek bezala.
b) Usoek “V” garbiak osatzen dituzte hegan; antzarek, aldiz, globo itxurako talde handi eta zaratatsuak.
c) Antzarek “V” itxuran egiten dute hegan; ubarroiek eta kurriloek, berriz, globo itxurako taldeak eratzen dituzte, usoenak bezalakoak.

**491. Zertan bereizten dira daitezke ur gaineko ahateak murgilarietatik?**

a) Ur azalekoak ez dira osoki murgiltzen uretan, elikatzeko.
b) Murgilariak txikiagoak dira.
c) Murgilariak kolore ilunagoak dituzte.

**492. Gure inguruneko zona hezeetan arruntak diren uretako hegazti hauetatik, zein ehiza daiteke?**

a) Txilinporta.
b) Murgila.
c) Murgilari mottoduna.

**493. Ondoko uretako hegaztietatik, zein da beltza?**

a) Murgilari arrunta.
b) Ahate buztanluzea.
c) Ubarroi handia.

**494. Maiz nahasten ditugu, elkarrekin duten antzagatik, uroiloa eta kopetazuria:**

a) Kopetazuria ehiza daiteke, eta uroiloa ez.
b) Uroiloa kopetazuria baino ehiza-espezie urriagoa da.
c) Sekula ez dugu tirorik egingo uretako hegazti beltzen aurka, bi espezieak babestuta baitaude, eta ezin baitira ehizatu.

**495. Kopetazuria eta uroiloa:**

a) Bereizezinak dira.
b) Lehenak gorria eta horia du mokoa, eta bigarrenak, zuria.
c) Lehenak zuria du mokoa, eta bigarrenak, gorri-horia.

**496. Tamainaz gainera, bi irizpide hauek hartu behar dira kontuan istingor espezieak bereizteko:**

a) Istingor arruntak hegaldi zuzena eta isila du.
b) Istingor txikiak hegaldi zuzenagoa eta isilagoa du.
c) Istingor txikiak sigi-saga egiten du hegan, eta garrasi, abiatzean.

**497. Ondoko espezietatik, zein ezin da ehizatu debekualdi erdian, eta bai udazkeneko ehizaldi ireki orokorrean?**

a) Galeperra.
b) Eper gorria.
c) Pagausoa.

**498. Galeperra:**

a) Eperra baino tamaina txikiagokoa da.
b) Eperraren tamaina berekoa da.
c) Eperra baino tamaina handiagokoa da.

**499. Birigarroak txori ertainak dira. Arrea dute gainaldeko lumajea; bularra eta sabela, berriz, pikardatuak dituzte:**

a) Lau espezieek kolore gorriztak dituzte saihetsetan eta hegoen behealdean.
b) Garraztarroak eta durdulak kolore okrekara eta gorrizta dute, hurrenez hurren, hegoen behealdean.
c) Birigarro arruntak eta birigarro txikiak kolore okrekara eta gorrizta dute, hurrenez hurren, hegoen behealdean.

**500. Honako ordena hau du birigarroen tamainak, handienetik txikienera:**

a) Birigarro txikia > birigarro arrunta > durdula > garraztarroa.
b) Garraztarroa > birigarro txikia > birigarro arrunta > durdula.
c) Garraztarroa > durdula > birigarro arrunta > birigarro txikia.

**501. Ondoko hegazti hauetatik, zein ehiza daiteke Euskadin?**

a) Belea.
b) Erroia.
c) Zozoa.

**502. Maiz nahasten dira belea eta erroia, baina guk garbi daukagu:**

a) Espezie bera dira.
b) Belea txikiagoa da, baina karranka zakarragoa eta buztana ziri formakoa ditu.
c) Erroia handiagoa da; karranka zakarra, moko sendoa eta buztana ziri formakoa ditu.

**503. Honako hauek bereizten dute erbia untxiarengandik: tamaina handiagoak, buztan zuri-beltzak eta atzeko hanka luzeagoek; gainera:**

a) Untxiak belarri motzagoak ditu, eta, erbiak ez bezala, punta beltzekoak.
b) Untxiak belarri luzeagoak ditu, eta punta beltzekoak.
c) Erbiak belarri luzeagoak ditu, eta punta beltzekoak.

**504. Itsasertzean:**

a) Kaioak ezin daitezke ehiza Euskal Autonomia Erkidegoan.
b) Kaio batzuk ehiza daitezke, baina bada kupo bat, eta aldatu egiten da ehizaldi batetik bestera.
c) Nahiz eta kaio batzuk ehizatzekoak izan, barnealdeko urtegietaraino joaten diren aleak bakarrik ehiza daitezke.

**505. Bada arreta berezia eskatzen duen gertaera bat: batzuetan, Europako hotz-bolada handiek bultzaturik, hegazti franko heltzen da gure itsasertzera. Une latz horietan:**

a) Gizalegez jokatu, eta ez ehiza.
b) Saltatzean ehizatu behar dira ubarroi mottoduna eta zanga, barnealdean aritzen baitira arrantzan garai horietan, eta kalte handia egiten baitute.
c) Normalean ehizatu ezin diren espezieak ehizatu behar dira, hala nola brantak; beste herri batzuetan, ordea, ehiza daitezke.

6. EHIZAKO ARMAK ETA TXAKURRAK

**Ehizako armak eta haien munizioak**

**506. Arma-araudiak bi motatan sailkatzen ditu ehizako su-armak:**

a) Arma luzeak eta motzak.
b) Arima leunekoak eta arima marratukoak.
c) Ehiza larrikoak eta ehiza xehekoak.

**507. Su-armen lehenengo baimena edo lizentzia eskuratzeko:**

a) Aski da ehiztari-azterketa gainditzea.
b) Arma-azterketa bat gainditu behar da.
c) Dagozkion zergak ordaindu behar dira bakarrik.

**508. Zer behar da erriflez eta eskopetaz ehizatzeko?**

a) "D" arma-baimena bi aldiz ordaintzea.
b) Bi arma motak erabiltzeko balio duen baimen bakar bat.
c) Bi arma-lizentzia edo -baimen mota desberdin.

**509. "D" arma-lizentziarekin, honako hauek eduki eta erabil daitezke gehienez:**

a) 5 ehiza-errifle.
b) 5 ehiza-eskopeta.
c) 10 ehiza-errifle.

**510. "E" arma-lizentziarekin, honako hauek eduki eta erabil daitezke gehienez:**

a) 5 ehiza-errifle.
b) 6 ehiza-eskopeta.
c) 10 su-arma, ehiza-errifleak eta -eskopetak zenbatuta.

**511. 60 urtetik beherako ehiztarientzat, honako iraupen hau du arma-lizentziak edo -baimenak:**

a) 3 urte.
b) 5 urte.
c) 10 urte.

**512. Zein da ehiza-arma bat erabiltzeko (ez jabe izateko) adinik txikiena?**

a) 14 urte.
b) 16 urte.
c) 18 urte.

**513. 1998tik, su-arma luze marradunak (errifleak) ongi gordeta eduki behar dira:**

a) Guardia Zibilaren edo Ertzaintzaren kuartelean.
b) Armategi homologatuetan, jabearen etxean.
c) Armairu baten gainean, haurren eskueratik kanpo eta ezkutuan.

**514. Errepikapen-eskopeta arma mota ezaguna da:**

a) Eskuz eragitekoa.
b) Automatikoa.
c) Erdiautomatikoa.

**515. "Errepikapenezkoa” da eskopeta mota hedatu bat. Zenbat kartutxo eduki ditzake, gehienez, kargadorean, ehizan ari garenean?**

a) Kartutxo bat.
b) 2 kartutxo.
c) 3 kartutxo.

**516. 12a da gehien erabilitako eskopeta kalibrea, badira beste batzuk ere, hala nola 20a:**

a) 20 kalibrea 12a baino diametro txikiagokoa da.
b) 20 kalibrea 12a baino diametro handiagokoa da.
c) Ez da 20 kalibrerik.

**517. Eskopeten kalibrearekin gertatzen denaren antzera, perdigoiaren tamaina ere zenbakiarekin aldatzen da:**

a) 8 zenbakiko perdigoia 10 zenbakikoa baino handiagoa da.
b) 8 zenbakiko perdigoia 10 zenbakikoa baino txikiagoa da.
c) 8 zenbakiko perdigoia 6 zenbakikoa baino handiagoa da.

**518. Eskopetaren *choke*a da funtsezko faktore bat ehiza modalitatearen eta ehizatu beharreko espeziearen arabera. Zer da chokea?**

a) Kanoien luzera.
b) Kanoi-ahoen barneko estutzea.
c) Tiro egiteko unean munizioak duen karga edo inertzia;.

**519. Errifleak dira su-armarik egokienak:**

a) Ehiza larrirako.
b) Ehiza xeherako.
c) Erbiak eta eperrak urrundik botatzeko.

**520. Arma luze marratuak dira ehiza-errifleak. Zer esan nahi du horrek?**

a) Arma horiek kanoi luzeak dituztela, eta marra batzuk, kanpoaldean, bakoitzak bereak, lapurreta kasuan identifikatzeko.
b) Kanoi luzeak dituztela, eta luzetarako bi “marra”, gainaldean, ehiztariak errazago zuzen dezan arma, mira teleskopikorik ez duenean.
c) Kanoi luzeak dituztela, eta haien barnealdea (“arima”), marra kiribil batez marratua, tiroaren zehaztasuna handitzeko.

**521. Ondokoa dugu ehizan gehien erabiltzen diren errifleetako bat:**

a) Morroiloduna.
b) Palankaduna.
c) 22 kalibrekoa.

**522. Eskopeta erabiltzen da ehiza xehean, ehizaki txikiei perdigoi txikiak jaurtitzeko asmatutako arma. Zer distantziatara botatzen dira, normalean, ehizakiok?**

a) 25-40 metrora.
b) 50-75 metrora.
c) 40-100 metrora.

**523. Bala erabili ohi da ehiza larrian, eta erriflea, gehienetan, nahiz eta bala-kartutxoz kargatutako eskopetak ere erabiltzen diren:**

a) 45-50 metroraino, ez da erabiltzen erriflerik.
b) 45-50 metrotik aurrera, askoz eraginkorragoa da erriflea eskopeta baino.
c) 150 metroraino, hobe da eskopeta erabiltzea.

**524. Eper gorria taldean ehizatzeko, 12 kalibreko eskopeta erabiltzen da nagusiki, lau izarretik bira bitarteko chokea duena, eta perdigoia:**

a) 5 zenbakitik 3ra bitartekoa.
b) 8 zenbakitik 6ra bitartekoa.
c) 10 zenbakitik 8ra bitartekoa.

**525. Galeperra ehizatzeko, 12 edo 20 kalibreko eskopeta erabiltzen da nagusiki, zilindro formako edo lau izarreko chokea duena, eta perdigoia:**

a) 5 zenbakitik 3ra bitartekoa.
b) 8 zenbakitik 6ra bitartekoa.
c) 11 zenbakitik 9ra bitartekoa.

**526. Oilagorra ehizatzeko, 12 kalibreko eskopeta erabiltzen da nagusiki, zilindro formako edo lau izarreko chokea duena, eta perdigoia:**

a) 5 zenbakitik 3ra bitartekoa.
b) 7 zenbakitik 6ra bitartekoa.
c) 10 zenbakitik 8ra bitartekoa.

**527. Orkatza ehizatzeko, 100-150 "grain"-eko kargak erabiltzen dira nagusiki, eta honako kalibre honetako errifleak:**

a) 6 milimetrokoak, uxaldian, eta 7-9 Magnum kalibrekoak, zelata-ehizan.
b) 6 milimetrotik 7ra bitartekoak.
c) 8tik 9ra bitartekoak.

**528. Basurdea uxaldian ehizatzeko, honako hauek erabiltzen dira nagusiki:**

a) 150-250 graineko kargak eta 7 mm-tik 9,3ra bitarteko kalibreko erriflea.
b) 3 zenbakitik zero hirukoitzera (000) bitarteko perdigoia eta zilindro formako chokea duen 12 kalibreko eskopeta.
c) Posta-kartutxoak edo zero bikoitzeko (00) perdigoia, eta izar bateko (+) chokea duen 12 kalibreko eskopeta.

**Ehizako txakurrak**

**529. Honako txakur mota hauek ditugu, erakusleak, arrastokoak, jazarpenekoak, bai eta jasotzaileak eta altxatzaileak ere:**

a) Nafarroan, bada arraza autoktono bat, patxona, eta basurdeak ehizatzeko erabiltzen da.
b) Gaur egun, ingeles arrazak bakarrik erabiltzen dira ehiza xeherako.
c) Badira Euskadiko eta Nafarroako ehiza-txakur autoktono batzuk.

**530. Oro har, honako hau da ingeles ehiza-txakur erakusleen berezitasun nagusia: beste txakur batzuek baino urrunago bilatzen dute, eta, gainera:**

a) Ehizakirik handienak erakusten dituzte.
b) Beste txakurrek baino distantzia handiagora erakusten dute ehiza.
c) Ehiza larria erakusten dute, ehiztaria aiztoaz hurbil dadin hura akabatzera.

**531. Zer dira pointer eta setter arrazak?**

a) Txakur erakusle kontinentalak.
b) Arrasto-txakur ingelesak.
c) Txakur erakusle ingelesak.

**532. Zer dira pointer eta braco arrazak?**

a) Txakur erakusleak.
b) Arrasto-txakur kontinentalak.
c) Txakur ingelesak.

**533. Oro har, zein da txakur erakusle kontinentalen berezitasun nagusia?**

a) Ehiza larrirako erabiltzen dira nagusiki.
b) Ehiza-txakur “integralak” dira, hau da, ez dituzte lumadun animaliak soilik ehizatzen.
c) Txakur ingelesek baino urrunago “erakusten” edo “gelditzen” dituzte eperrak.

**534. Zer ezaugarri komun dute Burgoseko eper-txakurrak, espanielak eta drahthaar arrazak?**

a) Txakur erakusle ingelesak dira.
b) Arrasto-txakur kontinentalak dira.
c) Txakur erakusle kontinentalak dira.

**535. Zer dira braco eta setter arrazak?**

a) Txakur ingelesak.
b) Txakur erakusleak.
c) Arrasto-txakur kontinentalak.

**536. Ondoko arrazetatik, zein da Iberiar penintsulakoa jatorriz?**

a) Pointerra.
b) Patxona.
c) Spaniel edo epagneul-a.

**537. Arrasto-txakurrei buruz, zein da egia honako baieztapen hauetatik?**

a) Ehiza-txakur guztiak kontinentalak dira, baina ez da ehiza-txakur arraza ingelesik.
b) Arrasto-txakur guztiak ehiza-txakurrak dira, baina ehiza-txakur guztiak ez dira arrasto-txakurrak.
c) Ehiza-txakur guztiak arrasto-txakurrak dira, baina arrasto-txakur guztiak ez dira ehiza-txakurrak.

**538. Zer ezaugarri komun dute griffon, basset eta beagle arrazek?**

a) Arrasto biziko txakurrak dira.
b) Txakur erakusle ingelesak dira.
c) Odol-txakur kontinentalak dira.

**539. Euskal ehiza-txakurra edo Iparraldeko ehiza-txakurra arrasto-txakurra da. Zertarako erabiltzen da batez ere?**

a) Basurdea ehizatzeko.
b) Oreina ehizatzeko.
c) Untxia ehizatzeko.

**540. Zer dira galgoak, "podenkoak" eta txakur harrapariak?**

a) Arrasto biziko txakurrak.
b) Jazarpen-txakurrak.
c) Txakur erakusle kontinentalak.

**541. Enkarterriko billanoa da Euskadiko ehiza-txakur arraza bakanetako bat, baina zertarako "asmatu" zuten nagusiki?**

a) Heltze-txakur izateko, basurde-ehizarako.
b) Orkatzak eta basurdeak lasterka harrapatzeko.
c) Mendiko behi-azienda erabiltzeko eta harrapatzeko.

**542. Zer dira jagdterrierra eta fox-terrierra?**

a) Arrasto biziko txakurrak.
b) Zulo-txakurrak.
c) Txakur erakusle kontinentalak.

**543. Ondoko txakur-arraza, batzuk jadanik galduetatik, zein sar liteke txakur jasotzaileen eta altxatzaileen multzoan?**

a) Billanoa.
b) Gasteizko patxona.
c) Urtxakurra.

**544. Ehiza-txakurrengan, zenbat irauten du umedunaldiak edo ernaldiak?**

a) Hilabete.
b) Bi hil.
c) Hiru hil.

**545. Ez badira umedun gelditu, ehiza-txakur emeek:**

a) Bi araldi dituzte urtean.
b) Hiru araldi dituzte urtean.
c) Sei araldi dituzte urtean.

**546. Azerien bidez kutsa daiteke basa-amorreria. Urtean zenbat aldiz eman behar zaie amorreriaren aurkako txertoa ehiza-txakurrei?**

a) Urtean behin.
b) Urtean bi aldiz.
c) Urtean hiru aldiz.

**547. Gizakion gorputz-tenperatura normala 37,0 ºC ingurukoa da. Zein da ehiza-txakur baten gorputz-tenperatura normala?**

a) 29,9 ºC.
b) 38,8 ºC.
c) 47,7 ºC.

**548. Landan zehar txakur bat lagun dugula gabiltzanean (ez ehizan), ezin dugu utzi animalia gure zainpetik kanpo ibil dadin. Zenbat urrundu behar du txakurrak jabearengandik, zainpetik kanpo dagoela jotzeko?**

a) 10 metrotik gora, edozein lur motatan.
b) 50 metrotik gora, gune garbietan, eta 15 metro, landaretza-guneetan.
c) 100 metrotik gora, gune garbietan, eta 50 metro, landaretza-guneetan.

7. ETIKA, SEGURTASUNA ETA JOKAERA

**549. Ondoko baieztapen hauetatik, zein jo daiteke etikoki zuzenagotzat?**

a) Hobets ezazu kalitatea, ez kantitatea.
b) Hobets ezazu kantitatea, ez kalitatea.
c) Hobe da ale gehiago botatzea, baina espezie gutxitakoak.

**550. Sekula ez dugu ehizatzea debekatuta dagoen espezierik ehizatu behar:**

a) Ehiza ez daitekeen espezie bati tiro egitea legez kanpokoa da.
b) Espezie babestu bat akabatzea legez kanpokoa da, baina hari akabatu gabe tiro egitea ez da gaitzesgarria.
c) Debekualdia altxatu arte itxaron behar da beti, ehiza daitezkeen hegazti harrapariak eta erroiak deuseztatzeko, haien kontrolerako.

**551. Harrapaketa masiboak eta ez-selektiboak egiteko bitartekoez:**

a) Printzipioz, soilik erabil daitezke ehiza xeheko espezie batzuk harrapatzeko eta harrapariak kontrolatzeko.
b) Ezohiko ugaritasun-egoeretan bakarrik erabiliko ditugu.
c) Beti uko egingo diogu haiek erabiltzeari.

**552. Salbuespen-egoeretan (ekaitzak, elurteak, suteak…):**

a) Ez gara ehizan arituko.
b) “Fortuna-egunak” dira horiek, eta arma leunekin eta soilik bi kartutxokoekin ehizatzeko bakarrik aprobetxatu behar dira.
c) Ehizara irtengo gara, ezohiko metatzeak gertatzen baitira, eta, nola animalia asko dabiltzan, ehiza kupoak ere askoz handiagoak izan daitezke.

**553. Ondokoetatik, zein baieztapen da etikoki egokiagoa?**

a) Ihesi doala edo etzanda dagoela, egin tiro beti ezkutatuta dagoen erbiari.
b) Oinez ikusten baduzu hegazti bat, aurrena zuzendu arma eta egin tiro.
c) Lehen-lehenik, identifika ezazu tiro egin behar diozun animalia.

**554. Zauritutako ehizakiak alferrik sufri ez dezan:**

a) Bilaketa sistematikoa antolatu behar da.
b) Legeak 5 minutuko gutxieneko bilaketa ezartzen du.
c) Ehizakia ehiza larrikoa bada bakarrik behartzen du ehiztariaren etikak hura bilatzera.

**555. Ehizara irten aurretik, funtsezko gauza bat egin behar du edozein ehiztarik:**

a) Ertzaintzaren hurbileneko kuarteletik igaro, ikuskapena egiteko bezperan utzi zuen eskopeta jasotzeko.
b) Legeak behartzen duen akainen aurkako txertoa eman egunero txakurrari, gainerako txakurrak ez kutsatzeko.
c) Zehatz-mehatz ezagutu arauak, denboraldi eta toki zehatz bakoitzeko.

**556. Ehizatzeko, arma-azterketa bat eta ehiza-azterketa bat gainditu behar da:**

a) Eta, horregatik, ondoan ehiztari beterano bat izatea bakarrik da nahitaezko 14 urtetik 16ra bitartean.
b) Beraz, 18 urtetik beherako gazteek jadanik ez daukate ondoan ehiztari beterano bat izan beharrik.
c) Hala ere, beteranoek heziketa eta jokaera egokia irakatsi behar dizkiete, eta adin-nagusitasunera arte lagundu behar dituzte nahitaez.

**557. Harrapaketen agiria entregatu behar da ehiza-denboraldiaren azkenean:**

a) Migrazio-espezieei bakarrik aplikatu behar zaie informazio hori.
b) Aipatu datuak faltsutzea edo informazio hori ez ematea arau-haustea da.
c) Ehizatutako animaliei legez zigilu bat ezarri behar bazaie bakarrik eman behar da haien berri.

**558. Eraztun bat daraman hegazti bat aurkitzean:**

a) Jakin behar duzu oso arau-hauste larria egin duzula.
b) Itzuli egin behar da: horrela, ikerketa zientifikoari laguntzen diozu.
c) Animalia hilik topatu baduzu, ez da arazorik; animalia hori zuk ehizatu baduzu sortzen da arazoa, espezie babestuei bakarrik jartzen baitzaie eraztuna.

**559. Autoan, nola eraman behar da arma?**

a) Desmuntatuta eta zorroan.
b) Desmuntatuta eta zorroan sartu gabe.
c) Zorroan, kargatuta badago ere.

**560. Autoan arma bat modu egokian eramateko, zorroan sartu behar da, eta:**

a) Maletategian ezkutatu.
b) Atzeko eserlekuaren gainean jarri.
c) Lurrean jarri, baina estalita, lapur ez dezaten.

**561. Arma bat kargatzean, nola egon behar dute kanoiek?**

a) Posizio horizontalean.
b) Lurrerantz zuzenduta.
c) Ez da besteak baino posizio seguruagorik.

**562. Noiz tiro egingo dugu beste pertsona batenganantz, txakur batenganantz edo espezie babestu batenganantz?**

a) Inoiz ez.
b) Perdigoi erako munizioa darabilgunean.
c) Gutxienez 50 m-ko distantzia dagoenean.

**563. Biltzeko zorian den uzta bat zeharkatzea eta zapaltzea gaitzesgarria da:**

a) Beti.
b) Txakurrekin goazenean bakarrik.
c) Baldin eta ehiza-garaitik kanpo baldin bagaude.

**564. Ohikoa da balaz eta perdigoiz kaltetutako ehiza-barruti seinaleak ikustea:**

a) Ez da etikoa seinale bati tiro egitea, baina ez da salagarria.
b) Nahiz eta ez den etikoa, soilik bigarren mailako seinaleekin eta norberaren ehiza-barruti barruan egin daiteke hori.
c) Seinale bati edo edozein ondasun publikori tiro egitea ez da etikoa, eta bai arau-haustea.

**565. Etikoa da sortzen ditugun hondakinak eta, bereziki, erabilitako kartutxoen zorroak jasotzea:**

a) Ez egitea aukera daiteke.
b) Ez egitea Ehiza legearen arau-haustea da.
c) Ez egitea onartutako txerrikeria da.

**566. Harrapariek duten eginkizunaz, oro har:**

a) Aitortu behar dugu funtsezko eginkizuna dutela ekosistemaren orekan.
b) Ugaritzea galarazi behar dugu, deuseztatze-teknika masiboak erabilita.
c) Espezierik kaltegarrienak ezagutu behar ditugu, eta ehizatu, harrapari espezie guztiak ehiza baitaitezke.

**567. Batzuetan, beharrezkoa izan daiteke birpopulatzeak egitea, ehiza-lur batean ehiza-populazioak eratzeko:**

a) Populazio bat ezartzeko, hibrido antzuak eta ugaltzeko gaitasunik ez dutenak askatzea da onena.
b) Espezie autoktonoetako eta tokiko anduietatik datozen banakoak erabiliko ditugu, genetikoki hurbilenak.
c) Aski da indartu nahi den espezie berekoak izan daitezen, zeren, adibidez, munduko eper guztiek genetika bera baitute.

**568. Hezeguneak:**

a) Orohar, ehizatu ezin den tokiak dira.
b) Babestuta egon ohi dira, eta, beraz, kaltegarriak dira ehizarentzat.
c) Garrantzi berezikoak dira faunarentzat.

**569. Arma deskargatua erabiltzea:**

a) Ez du istripurik sortzen.
b) Arriskutsua da arma bat inorenganantz zuzentzea deskargatuta dagoela uste izanda ere.
c) Kargatuta eta segurtagailua ipinita eraman daiteke arma autoan.

**570. Gure ehiza-barrutia seinaleztatzeko:**

a) Ohiturari jarraitu eta kartelak ezarriko ditugu zuhaitzetan, beheko adarrak inaustea ahaztu gabe.
b) Diren zuhaitzak aprobetxatuko ditugu, seinaleak ezartzeko.
c) Egurrezko edo metalezko hesolak edo taketak erabiliko ditugu.

**571. Pase-garaian postu finkotik pagauso-ehizan ari garenean:**

a) Armak zorroan ditugula heldu behar dugu postura.
b) Arma tiro egiteko prest dugula ibil gaitezke postuen artean.
c) Ez da komeni arma deskargatzea postua uzten dugunean, bat-batean uso talderen bat etor liteke eta.

**572. Erreparatu beti jaurtigaiaren azken helburuari, tiroa huts eginez gero:**

a) Zerurantz joan dadin.
b) Lurrerantz joan dadin.
c) Sasirantz joan dadin.

**573. Uxaldietan, postutik alde egiteko:**

a) Egin daiteke soilik uxaldiaren arduradunak baimena eman eta gero.
b) Arduradunari ez zaio berri eman behar, nahikoa da postuen atzekaldetik joatea.
c) Igarotzen diren postuetako lagunak abisatu behar dituzu, ez uxaldiaren arduraduna.

**574. Segurtasun neurri gisa, uxaldia egin aurretik:**

a) Egin behar dela abisatzeko seinaleak jarri behar dira.
b) "Ehiza-erreserba" dioten seinale horiak jarri behar dira, egun zehatz horretan ehizatzeko eskubidea erreserbatuta dagoela ohartarazteko.
c) Ez da ehizan hasi aurretik seinaleztatu beharra ezartzen duen inongo araurik.

**575. Segurtasun-neurri gisa eta ehiztarien beren osotasun fisikoa gordetzeko, uxaldiari ekin aurretik kolore nabarmeneko txalekoak jantzi behar dituzte:**

a) Su-armak dituzten ehiztariek bakarrik.
b) Bai su-armak dituzten ehiztariek, bai uxatzaileek.
c) Uxatzaileek bakarrik, armadunek tiro egin ez diezaieten.

GALDETEGI EREDUA ZUZENTZEKO TXANTILOIA

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 1 | X | | |
| 2 | | | X |
| 3 | | X | |
| 4 | X | | |
| 5 | | | X |
| 6 | | X | |
| 7 | X | | |
| 8 | | | X |
| 9 | | X | |
| 10 | X | | |
| 11 | | X | |
| 12 | | X | |
| 13 | X | | |
| 14 | | | X |
| 15 | X | | |
| 16 | | | X |
| 17 | | | X |
| 18 | X | | |
| 19 | X | | |
| 20 | | X | |
| 21 | | | X |
| 22 | X | | |
| 23 | | | X |
| 24 | X | | |
| 25 | | | X |
| 26 | | X | |
| 27 | | | X |
| 28 | | X | |
| 29 | X | | |
| 30 | | | X |
| 31 | X | | |
| 32 | X | | |
| 33 | | X | |
| 34 | | | X |
| 35 | X | | |
| 36 | | X | |
| 37 | X | | |
| 38 | | | X |
| 39 | | X | |
| 40 | X | | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 41 | | X | |
| 42 | | | X |
| 43 | | X | |
| 44 | | X | |
| 45 | X | | |
| 46 | | X | |
| 47 | | | X |
| 48 | | | X |
| 49 | X | | |
| 50 | | X | |
| 51 | X | | |
| 52 | | | X |
| 53 | | X | |
| 54 | | X | |
| 55 | X | | |
| 56 | X | | |
| 57 | | X | |
| 58 | | | X |
| 59 | X | | |
| 60 | | X | |
| 61 | | X | |
| 62 | X | | |
| 63 | | X | |
| 64 | | | X |
| 65 | | X | |
| 66 | X | | |
| 67 | | X | |
| 68 | | X | |
| 69 | | | X |
| 70 | X | | |
| 71 | | | X |
| 72 | | | X |
| 73 | | | X |
| 74 | | X | |
| 75 | | | X |
| 76 | X | | |
| 77 | X | | |
| 78 | X | | |
| 79 | | | X |
| 80 | X | | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 81 | | | X |
| 82 | | X | |
| 83 | X | | |
| 84 | | X | |
| 85 | X | | |
| 86 | | X | |
| 87 | | | X |
| 88 | | | X |
| 89 | X | | |
| 90 | | X | |
| 91 | X | | |
| 92 | | X | |
| 93 | | X | |
| 94 | X | | |
| 95 | | | X |
| 96 | | X | |
| 97 | | | X |
| 98 | X | | |
| 99 | X | | |
| 100 | X | | |
| 101 | | X | |
| 102 | | X | |
| 103 | | | X |
| 104 | | X | |
| 105 | | | X |
| 106 | | X | |
| 107 | X | | |
| 108 | | | X |
| 109 | | X | |
| 110 | | X | |
| 111 | | X | |
| 112 | | | X |
| 113 | | | X |
| 114 | | | X |
| 115 | X | | |
| 116 | | | X |
| 117 | | | X |
| 118 | | X | |
| 119 | | X | |
| 120 | X | | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 121 | | X | |
| 122 | | X | |
| 123 | | | X |
| 124 | | | X |
| 125 | | X | |
| 126 | | X | |
| 127 | | | X |
| 128 | | X | |
| 129 | X | | |
| 130 | X | | |
| 131 | | | X |
| 132 | | X | |
| 133 | X | | |
| 134 | | X | |
| 135 | | | X |
| 136 | | | X |
| 137 | X | | |
| 138 | | | X |
| 139 | | | X |
| 140 | | X | |
| 141 | | X | |
| 142 | X | | |
| 143 | | X | |
| 144 | | | X |
| 145 | | X | |
| 146 | | | X |
| 147 | | X | |
| 148 | X | | |
| 149 | | X | |
| 150 | X | | |
| 151 | | | X |
| 152 | X | | |
| 153 | | X | |
| 154 | | | X |
| 155 | X | | |
| 156 | | X | |
| 157 | | | X |
| 158 | X | | |
| 159 | X | | |
| 160 | | X | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 161 | X | | |
| 162 | | X | |
| 163 | X | | |
| 164 | | X | |
| 165 | | | X |
| 166 | | X | |
| 167 | | X | |
| 168 | | | X |
| 169 | X | | |
| 170 | | | X |
| 171 | | X | |
| 172 | | | X |
| 173 | | X | |
| 174 | | X | |
| 175 | | | X |
| 176 | X | | |
| 177 | | | X |
| 178 | X | | |
| 179 | | X | |
| 180 | | | X |
| 181 | | | X |
| 182 | | X | |
| 183 | X | | |
| 184 | | | X |
| 185 | | | X |
| 186 | | X | |
| 187 | | X | |
| 188 | X | | |
| 189 | | X | |
| 190 | | | X |
| 191 | X | | |
| 192 | | | X |
| 193 | | X | |
| 194 | | X | |
| 195 | | | X |
| 196 | | | X |
| 197 | | X | |
| 198 | | | X |
| 199 | X | | |
| 200 | | | X |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 201 | X | | |
| 202 | X | | |
| 203 | | X | |
| 204 | | | X |
| 205 | | | X |
| 206 | | X | |
| 207 | X | | |
| 208 | | X | |
| 209 | | X | |
| 210 | X | | |
| 211 | | | X |
| 212 | X | | |
| 213 | | X | |
| 214 | X | | |
| 215 | X | | |
| 216 | | | X |
| 217 | | | X |
| 218 | | X | |
| 219 | | | X |
| 220 | | X | |
| 221 | X | | |
| 222 | | | X |
| 223 | | X | |
| 224 | | X | |
| 225 | | | X |
| 226 | | | X |
| 227 | | X | |
| 228 | X | | |
| 229 | | X | |
| 230 | X | | |
| 231 | | X | |
| 232 | | | X |
| 233 | | | X |
| 234 | X | | |
| 235 | | | X |
| 236 | X | | |
| 237 | | | X |
| 238 | | X | |
| 239 | | X | |
| 240 | | | X |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 241 | | | X |
| 242 | X | | |
| 243 | | | X |
| 244 | | X | |
| 245 | | | X |
| 246 | X | | |
| 247 | | | X |
| 248 | | | X |
| 249 | | X | |
| 250 | X | | |
| 251 | | X | |
| 252 | | | X |
| 253 | X | | |
| 254 | | | X |
| 255 | | X | |
| 256 | | | X |
| 257 | X | | |
| 258 | | X | |
| 259 | X | | |
| 260 | | X | |
| 261 | X | | |
| 262 | X | | |
| 263 | | | X |
| 264 | | | X |
| 265 | X | | |
| 266 | | | X |
| 267 | X | | |
| 268 | | | X |
| 269 | X | | |
| 270 | | X | |
| 271 | X | | |
| 272 | | X | |
| 273 | X | | |
| 274 | | | X |
| 275 | | | X |
| 276 | X | | |
| 277 | | X | |
| 278 | | X | |
| 279 | X | | |
| 280 | X | | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 281 | | X | |
| 282 | | | X |
| 283 | | | X |
| 284 | | X | |
| 285 | | | X |
| 286 | | X | |
| 287 | | X | |
| 288 | X | | |
| 289 | X | | |
| 290 | | | X |
| 291 | X | | |
| 292 | X | | |
| 293 | | X | |
| 294 | | X | |
| 295 | | | X |
| 296 | | | X |
| 297 | X | | |
| 298 | X | | |
| 299 | | X | |
| 300 | | X | |
| 301 | X | | |
| 302 | | | X |
| 303 | | X | |
| 304 | | X | |
| 305 | | X | |
| 306 | | | X |
| 307 | | X | |
| 308 | | X | |
| 309 | | | X |
| 310 | | X | |
| 311 | | | X |
| 312 | | | X |
| 313 | X | | |
| 314 | X | | |
| 315 | | | X |
| 316 | | | X |
| 317 | | X | |
| 318 | | | X |
| 319 | | X | |
| 320 | | | X |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 321 | | X | |
| 322 | | | X |
| 323 | X | | |
| 324 | | X | |
| 325 | | | X |
| 326 | | | X |
| 327 | | X | |
| 328 | | | X |
| 329 | X | | |
| 330 | | | X |
| 331 | | | X |
| 332 | | X | |
| 333 | | | X |
| 334 | X | | |
| 335 | X | | |
| 336 | | X | |
| 337 | X | | |
| 338 | | | X |
| 339 | X | | |
| 340 | | X | |
| 341 | X | | |
| 342 | X | | |
| 343 | | | X |
| 344 | | X | |
| 345 | X | | |
| 346 | | X | |
| 347 | | | X |
| 348 | | X | |
| 349 | | X | |
| 350 | X | | |
| 351 | X | | |
| 352 | | X | |
| 353 | X | | |
| 354 | | X | |
| 355 | | | X |
| 356 | | | X |
| 357 | | X | |
| 358 | X | | |
| 359 | X | | |
| 360 | | X | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 361 | | X | |
| 362 | | | X |
| 363 | X | | |
| 364 | | X | |
| 365 | | X | |
| 366 | | | X |
| 367 | X | | |
| 368 | | | X |
| 369 | X | | |
| 370 | | X | |
| 371 | X | | |
| 372 | | X | |
| 373 | | | X |
| 374 | | X | |
| 375 | | | X |
| 376 | | X | |
| 377 | X | | |
| 378 | | X | |
| 379 | X | | |
| 380 | | X | |
| 381 | X | | |
| 382 | | | X |
| 383 | | | X |
| 384 | X | | |
| 385 | | | X |
| 386 | X | | |
| 387 | | X | |
| 388 | | | X |
| 389 | | | X |
| 390 | | X | |
| 391 | X | | |
| 392 | | X | |
| 393 | X | | |
| 394 | | X | |
| 395 | X | | |
| 396 | | X | |
| 397 | | | X |
| 398 | | X | |
| 399 | | X | |
| 400 | X | | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 401 | | | X |
| 402 | | | X |
| 403 | X | | |
| 404 | | X | |
| 405 | X | | |
| 406 | | X | |
| 407 | | | X |
| 408 | X | | |
| 409 | | X | |
| 410 | X | | |
| 411 | | | X |
| 412 | X | | |
| 413 | | | X |
| 414 | X | | |
| 415 | | X | |
| 416 | | | X |
| 417 | | | X |
| 418 | X | | |
| 419 | | X | |
| 420 | | X | |
| 421 | | | X |
| 422 | | | X |
| 423 | X | | |
| 424 | | | X |
| 425 | | X | |
| 426 | X | | |
| 427 | X | | |
| 428 | | | X |
| 429 | | | X |
| 430 | X | | |
| 431 | X | | |
| 432 | | X | |
| 433 | | X | |
| 434 | X | | |
| 435 | | X | |
| 436 | | X | |
| 437 | X | | |
| 438 | X | | |
| 439 | | | X |
| 440 | | X | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 441 | | | X |
| 442 | | | X |
| 443 | | X | |
| 444 | X | | |
| 445 | | X | |
| 446 | | | X |
| 447 | | | X |
| 448 | X | | |
| 449 | X | | |
| 450 | | | X |
| 451 | X | | |
| 452 | X | | |
| 453 | | X | |
| 454 | X | | |
| 455 | | | X |
| 456 | | X | |
| 457 | | X | |
| 458 | | | X |
| 459 | | X | |
| 460 | X | | |
| 461 | | | X |
| 462 | | | X |
| 463 | X | | |
| 464 | X | | |
| 465 | | X | |
| 466 | X | | |
| 467 | X | | |
| 468 | | X | |
| 469 | | | X |
| 470 | | | X |
| 471 | | X | |
| 472 | | X | |
| 473 | X | | |
| 474 | | | X |
| 475 | | | X |
| 476 | | X | |
| 477 | | X | |
| 478 | | | X |
| 479 | | | X |
| 480 | X | | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 481 | X | | |
| 482 | | X | |
| 483 | X | | |
| 484 | | X | |
| 485 | | X | |
| 486 | | | X |
| 487 | X | | |
| 488 | | | X |
| 489 | | | X |
| 490 | X | | |
| 491 | X | | |
| 492 | | | X |
| 493 | | | X |
| 494 | X | | |
| 495 | | | X |
| 496 | | X | |
| 497 | | X | |
| 498 | X | | |
| 499 | | | X |
| 500 | | | X |
| 501 | X | | |
| 502 | | | X |
| 503 | | | X |
| 504 | X | | |
| 505 | X | | |
| 506 | | X | |
| 507 | | X | |
| 508 | | | X |
| 509 | X | | |
| 510 | | X | |
| 511 | | X | |
| 512 | X | | |
| 513 | | X | |
| 514 | | | X |
| 515 | | X | |
| 516 | X | | |
| 517 | X | | |
| 518 | | X | |
| 519 | X | | |
| 520 | | | X |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 521 | X | | |
| 522 | X | | |
| 523 | | X | |
| 524 | | X | |
| 525 | | | X |
| 526 | | | X |
| 527 | | X | |
| 528 | X | | |
| 529 | | | X |
| 530 | | X | |
| 531 | | | X |
| 532 | X | | |
| 533 | | X | |
| 534 | | | X |
| 535 | | X | |
| 536 | | X | |
| 537 | | | X |
| 538 | X | | |
| 539 | X | | |
| 540 | | X | |
| 541 | | | X |
| 542 | | X | |
| 543 | | | X |
| 544 | | X | |
| 545 | X | | |
| 546 | X | | |
| 547 | | X | |
| 548 | | X | |
| 549 | X | | |
| 550 | X | | |
| 551 | | | X |
| 552 | X | | |
| 553 | | | X |
| 554 | X | | |
| 555 | | | X |
| 556 | | | X |
| 557 | | X | |
| 558 | | X | |
| 559 | X | | |
| 560 | X | | |

| GALDERA ZENBAKIA | ERANTZUN ZUZENA | | |
|---|---|---|---|
| | A | B | C |
| 561 | | X | |
| 562 | X | | |
| 563 | X | | |
| 564 | | | X |
| 565 | | X | |
| 566 | X | | |
| 567 | | X | |
| 568 | | | X |
| 569 | | X | |
| 570 | | | X |
| 571 | X | | |
| 572 | | X | |
| 573 | X | | |
| 574 | X | | |
| 575 | | X | |